 - Fitxategi mota gehienak transferitu nahi badituzu, zure gailuan agertzen den elkarrizketa koadroan, hautatu USB aukera.
 - DRM bidez bababestutako multimedia fitxategiak transferitu nahi badituzu, zure gailuan gertzen den elkarrizketa koadroan, hautatu multimedia transferitzeko aukera.
3. Beharrezkoa bada, idatzi pasahitz bat. Zure gailua unitate gisa agertzen da ordenagailuan.
4. Arrastatu fitxategi bat ordenagailuko kokaleku batetik gailuko karpeta batera.

Zure gailura transferitutako fitxategia ikusteko, deskonektatu gailua ordenagailutik eta bilatu fitxategia.

Lotutako gaiak

[Fitxategi bat zure ordenagailutik gailura transferitu honakoa erabiliz BlackBerry Desktop Software, 29](#)

Fitxategi bat zure ordenagailutik gailura transferitu honakoa erabiliz BlackBerry Desktop Software

With the BlackBerry® Desktop Software erabiliz, multimedia fitxategiak sinkroniza ditzakezu zure BlackBerry gailuan, iTunes erreprodukzio zerrendak eta Windows Media® Player erreprodukzio zerrendak barne. BlackBerry Desktop Software ordenagailutik deskargatzeko, bisitatu www.blackberry.com/desktop eta hautatu ordenagailuarentzako aukera egokia.

1. Konektatu gailua ordenagailura.
2. Zure gailuan agertzen den elkarrizketa koadroan, hautatu fitxategia transferitzeko edozein aukera.
3. Ordenagailuan, ireki BlackBerry Desktop Software.
4. Sakatu egin nahi duzunera hobeto egokitzen den multimedia fitxategia transferitzeko aukera.

Multimedia fitxategiak sinkronizatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Laguntza hemen BlackBerry Desktop Software.

Lotutako gaiak



[Fitxategi bat zure ordenagailutik gailura transferitu zure gailua USB memoria unitate gisa erabiliz, 12](#)

Deiak eta soinu-profilak

Aldatu deien bolumen lehenetsia


Deien bolumen lehenetsia igo edo jaitsi dezakezu. Bolumenaren ehunekoa zenbat eta altuago, hainbat eta altuagoa izango da bolumena.

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.

2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.
3. Aldatu **Deiaren bolumen lehenetsia** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Dei-tonuak, jakinarazleak edo gogorazleak aldatu

Tonua aldatzeaz gainera, deia abian dela bolumenaren, LEDaren, bibrazioaren eta jakinarazpenaren tonuen aukerak alda ditzakezu.


1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak** > **Hautatutako profilaentzako soinuak**.
 - Dei-tonua aldatzeko, sakatu **Telefonia**.
 - Jakinarazpenak edo gogorazleak aldatzeko, sakatu atala zabaltzeko. Sakatu aukera bat.
3. **Dei-tonua, Jakinarazpen-tonua** edo **Gogoarazle-tonua** eremuan, egin hauekiko bat:
 - Sakatu tonu bat.
 - BlackBerry® gailuan edo memoria-txartelean dagoen abesti bat erabiltzeko, sakatu **Musika guztia**. Bilatu eta sakatu abesti bat.
 - Grabatu duzun ahots-ohar bat erabiltzeko, sakatu **Ahots-ohar guztiak**. Aurkitu eta sakatu ahots-ohar bat.
 - Aurrez kargatutako alerta bat erabiltzeko, sakatu **Alerta guztiak**. Bilatu eta sakatu alerta bat.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.


Lotutako gaiak

[Ezin dut aldatu nire gailuak jotzen duen tonu kopurua, 59](#)

Kontaktu-alerta gehitu


Kontaktu eta kontaktu talde jakinek deitzean edo mezuak bidaltzean jasoko dituzun dei hotsen tonuak eta alertak personalizatzea onartzen duten kontaktu alertak sor ditzakezu. Kontaktuaren dei edo mezu bat jasotzen duzunean, BlackBerry® gailuak esleitutako dei hotsen tonua edo alerta erabiltzen du, soinu profilean Isilik edo Bibrazioa soilik hautatu baduzu ere. Esleitutako dei hotsen tonua edo alerta jakinaraztea nahi ez baduzu, Alerta guztiak desaktibatuta profila hauta dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak** > **Kontaktuentzako soinuak** > **Gehitu kontaktuen alerta**.
3. **Izena** eremuan, idatzi kontaktuen alertaren izena.
4. **Kontaktuak** eremuan, idatzi kontaktuen izena.
5. Sakatu kontaktu bat.
6. Aldatu deientzako eta mezuentzako dei hotsen tonua eta alerta.
7. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Kontaktuen alerta bat kentzeko, nabarmendu ezabatu nahi duzun kontaktuen alerta bat. Sakatu  tekla > **Ezabatu**.





Konfiguratu markatze bizkorra kontaktu bateri

1. Hasierako pantailan, sakatu **Bidali** tekla.

2. Sakatu  tekla > **Ikusi > Markatze bizkorren zerrenda.**
3. **Markatze bizkorreko zenbakiak** zerrendan, sakatu esleitu gabeko tekla bat.
4. Sakatu kontaktu bat.
5. Beharrezkoa bada, sakatu kontaktuarentzako telefono zenbaki bat.


Markatze bizkorra erabiliz dei bat egiteko, Telefonoa aplikazioan, Hasierako pantailan, mezu batean edo mezu zerrenda batean zaudela, eduki sakatuta kontaktuari esleitu diozun tekla.

Deitzailearen IDrako kontaktuaren argazki bat gehitu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Kontaktuak** ikonoa.
2. Nabarmendu kontaktu bat.
3. Sakatu  tekla > **Editatu.**
4. Sakatu  tekla > **Gehitu irudia.**
5. Bilatu, nabarmendu eta sakatu argazki bat.
6. Beharrezkoa bada, mugitu mozteko kutxa erabili nahi duzun argazki zatira.
7. Sakatu  tekla > **Moztu eta gorde.**
8. Sakatu  tekla > **Gorde.**


Idazketa eta nabigazio-tekla

Ezarri kurtsorearen abiadura

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Klikatu **Idazketa eta sarrera > Teklatua.**
3. Aldatu **Teklen abiadura** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde.**

Ezarri nabigazio teklaren sentsibilitatea


Nabigazio teklak zure ukipenari nola erantzuten dion ezarri dezakezu. Sentsibilitate maila altuarekin presio txikiagoa egin behar da sentsibilitate maila baxuarekin baino.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera > Nabigazio teklaren sentsibilitatea.**
3. Aldatu **Sentsibilitate horizontala** eremua eta **Sentsibilitate bertikala** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde.**

Idazteko estiloa aldatu

Idazteko estilo bat hautatuta alda dezakezu nola ezagutuko duen BlackBerry® gailuak zuk idatzitakoa.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera > Idazketa.**
3. Teklatuarentzako, egin hauetako bat:

- Idazketa laguntza guztiak desaktibatzeke, hautatu **ZuzenaEstiloa** eremuan.
 - Idatzi ahala gailuak hitzak iradokitzeke, hautatu **IgarleaEstiloa** eremuan.
 -
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Aurkitu informazio gehiago






- **Laguntza zure gailuare inguruan:** jarraibideak zure BlackBerry® gailuko erabiltzailearen gidan aurkituko dituzu. Sakatu **Laguntza** hasierako pantailan edo aplikazio menu batean.
- www.discoverblackberry.com: zure gailuarentzako softwarea, aplikazioak eta osagarriak aurkituko dituzu.
- **Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen webgunea:** zure hari gabeko sareari eta hari gabeko zerbitzu-planari buruzko informazioa aurkituko duzu.
- www.blackberry.com/go/declarationofconformity: 1999/5/EE (HG nr.88/2003) Zuzentarauaren arabera egindako Onespen Deklarazioa ikus dezakezu.

Lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Telefonoaren lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Aldatu telefonoaren dei-tonua	Hasierako pantailan, sakat  tekla. Sakatu  tekla > Deskargatu dei-tonuak.
Ahots posta egiaztatu	Eduki sakatuta 1 .
Konfiguratu markatze bizkorra kontaktu bateri	Hasierako pantailan edo telefonoaren aplikazioan, eduki sakatuta markatze azkarra esleitu nahi diozun tekla
Gehitu luzapena telefono-zenbaki bati	Sakatu Alt tekla eta X . Idatzi luzapen-zenbakia.
Idatzi letra bat telefono-zenbakiaren eremuan	Sakatu Alt tekla eta letra tekla.
Idatzi gehi zeinua (+) telefono-zenbakia idazten duzunean	Sakatu O
Aktibatu edo desaktibatu bozgorailua deian	Sakatu  tekla teklatuan.
Utzi deia hari gabeko entzungailuan entzuteari	Sakatu  tekla teklatuan.
Aldatu telefono-zenbaki aktiboa	Hasierako pantailan, sakat  tekla. Sakatu pantailaren goialdeko telefono zenbakia. Sakatu telefono zenbaki bat.

Mezuen lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Mezu batean

Erantzun mezu bati	Sakatu R
Guztiei erantzun mezu elektronikoa edo PIN mezu baten bidez	Sakatu L .
Mezuak birbidali	Sakatu F
Mezu elektronikoa bat artxibatu	Sakatu I

Ikusi edo ezkutatu kontaktu baten helbide elektronikoa	Nabarmendu kontaktua Nori edo Nork eremuetan. Sakatu Q .
Joan kurtsorea utzitako azken tokira, jaso duzun mezu elektronikoa bat edo PIN mezu bat itxi eta berriz ireki ondoren	Sakatu G
Joan hurrengo mezura	Sakatu N
Joan aurreko mezura	Sakatu P

Mezuen sarrerako ontzian

Mezuak ireki	Sakatu  tekla.
Idatzi mezu bat sarrerako ontzian	Sakatu C
Markatu mezu bat irekita edo ireki gabe gisa	Sakatu Alt tekla eta U .
Gehitu bandera bat mezu bati	Sakatu W
Ikusi banderadun mezu guztiak	Sakatu Alt tekla eta F .
Ikusi jasotako mezuak eta jasotako deien erregistroak	Sakatu Alt tekla eta I .
Ikusi bidalitako mezuak	Sakatu Alt tekla eta O .
Ikusi ahots postako mezuak	Sakatu Alt tekla eta V .
Ikusi testu mezuak	Sakatu Alt tekla eta S .
Ikusi deien erregistroak	Sakatu Alt tekla eta P .
Ikusi zure mezu guztiak	Sakatu  tekla.

Mugitu mezuen sarrerako ontzian

Igo pantaila	Sakatu Maius tekla eta Zuriunea tekla.
Jaitsi pantaila	Sakatu Zuriunea tekla.
Mugitu mezuen sarrerako ontziaren hasierara	Sakatu T
Mugitu mezuen sarrerako ontziaren amaierara	Sakatu B
Joan ireki gabeko hurrengo elementura	Sakatu U
Joan erlazionatutako hurrengo mezura	Sakatu J
Joan erlazionatutako aurreko mezura	Sakatu K

Fitxategien eta eranskinen lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Bilatu testua fitxategi edo eranskin batean	Sakatu F
Joan kurtsoarea utzitako azken tokira, fitxategia edo eranskina itxi eta ireki ondoren.	Sakatu G

Kalkulu-orri batean

Mugitu gelaxka zehatz batera	Sakatu G
Gelaxka baten edukia ikusi	Sakatu Zuriunea tekla
Aldatu kalkulu orrien artean	Sakatu V . Nabarmendu lan-orri bat. Sakatu Sartu tekla.
Ikusi edo ezkutatu zutabeak edo errenkadak	Sakatu H

Aurkezpen batean

Aldatu aurkezpenen ikuspegien artean	Sakatu M
Joan hurrengo diapositibara, diapositiba ikuspegian aurkezpenak ikustean	Sakatu N
Joan aurreko diapositibara, diapositiba ikuspegian aurkezpenak ikustean	Sakatu P
Joan kurtsoarea utzitako azken tokira testu ikuspegian edo testu eta diapositiba ikuspegian ikusten ari zinen aurkezpena itxi eta ireki ondoren.	Sakatu G

Idazketa lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.



Idatzi puntu bat	Sakatu Zuriunea tekla birritan. Hurrengo letra letra larriz agertuko da.
Idatzi a bildua (@) ikurra edo puntua (.) helbide elektronikoaren eremuan	Sakatu Zuriunea tekla.
Maiuskulaz idatzi	Eduki sakatuta letra tekla letra larria agertzen den arte.
CAP lock gaitu	Sakatu Alt tekla eta Eskuineko maius tekla. CAP lock desaktibatzeke, sakatu Ezkerreko maius tekla edo Eskuineko maius tekla.
Ikur bat sartu	Sakatu Ikurra tekla. Sakatu ikurraren azpian agertzen den letra tekla.

Teklako ordezeko karakterea idazten du	Sakatu Alt tekla eta karaktere tekla
Idatzi azentu edo karaktere berezi bat	Eduki sakatuta letra tekla eta, nabigazio teklan, irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera. Adibidez ü idazteko, eduki sakatuta U eta irristatu hatza ezkerrera ü agertzen den arte. Askatu letra-tekla azentua duen letra edo karaktere berezia agertzen denean.
Zenbaki bat testu-eremuan idatzi	Eduki sakatuta Alt tekla eta sakatu zenbaki tekla.
Idatzi zenbaki bat zenbaki eremu batean	Sakatu zenbaki tekla. Ez duzu Alt tekla sakatu behar.
Aktibatu NUM lock	Sakatu Alt tekla eta Ezkerreko maius tekla. NUM lock desaktibatzeke, sakatu Ezkerreko maius tekla edo Eskuineko maius tekla.
Testuko lerro bat nabarmendu	Sakatu Ezkerreko maius tekla edo Eskuineko maius tekla eta, nabigazio teklan, irristatu hatza gora edo behera.
Testua karakterez karaktere nabarmendu	Sakatu Ezkerreko maius tekla edo Eskuineko maius tekla eta, nabigazio teklan, irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera.
Nabarmendutako testua moztu	Sakatu Ezkerreko maius tekla edo Eskuineko maius tekla eta Atzera/Ezabatu tekla.
Kopiatu nabarmendutako testua	Sakatu Alt tekla eta sakatu nabigazio tekla.
Itsatsi testua	Sakatu Ezkerreko maius tekla edo Eskuineko maius tekla eta sakatu nabigazio tekla.

Multimedia lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Audio eta bideo fitxategiak

Pausatu audio edo bideo fitxategi bat	Sakatu  tekla BlackBerry® gailuaren goialdean.
Berrekina audio edo bideo fitxategi baten erreproduzioari	Sakatu  tekla.
Erreproduzitu hurrengo abestia	Eduki sakatuta gailuaren eskuinaldeko Bolumena igo tekla.
Erreproduzitu aurreko abestia	Eduki sakatuta gailuaren eskuinaldeko Bolumena jaitsi tekla.

Aktibatu audioa areagotzeko eginbidea aurikularrak erabiltzen ari bazara

Audio edo bideo fitxategi bat erreproduzitzerakoan, sakatu **Bolumena igo** tekla gorengo bolumen ezarpenera iritsi arte eta, ondoren, sakatu **Bolumena igo** tekla azkar lau aldiz.

Irudiak

Handiagotu	Sakatu I
Txikiagotu	Sakatu O
Panoramika handiagotu	Sakatu 2
Panoramika txikiagotu	Sakatu 8
Panoramika eskuinera	Sakatu 6
Panoramika ezkerrera	Sakatu 4
Biratu	Sakatu L.

Kamera eta bideo kamera

Handiagotu argazki bat atera edo bideo bat grabatu aurretik	Sakatu Bolumena igo tekla.
Txikiagotu argazki bat atera edo bideo bat grabatu aurretik	Sakatu Bolumena jaitsi tekla.
Atera argazki bat	Sakatu gailuaren alboko Eskuineko egokitze tekla.

Arakatzzailearen lasterbideak

Arakatzzailearen lasterbideak erabiltzeko, baliteke lasterbideak aktibatu behar izatea arakatzzailearen aukeretan. Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Web helbidearen eremuan puntu (.) bat idatzi	Sakatu Zuriunea tekla.
Web helbidearen eremuan barra (/) bat idatzi	Sakatu Maius tekla eta Zuriunea tekla.
Ezeztatu web orri baten karga	Sakatu Ihes tekla.
Arakatzzailea itxi	Eduki sakatuta Ihes tekla.

Web orri batean

Azkar aldatu fitxen artean	Sakatu W
Handiagotu web orria	Sakatu I
Txikiagotu web orria	Sakatu O
Joan hasierako orrialdera	Sakatu G
Orri nagusira itzuli	Sakatu H
Ireki marken zerrenda	Sakatu K
Gehitu marka bat	Sakatu A
Duela gutxi ikusi dituzun web orrien zerrenda ikusi	Sakatu Y
Freskatu web orria	Sakatu R
Bilatu testua web orri batean	Sakatu F . Hurrengo bat-etortzea bilatzeko, sakatu V .
Ireki arakatzzailearen aukerak	Sakatu S

Mugitu web orrian

Igo pantaila	Sakatu Maius tekla eta Zuriunea tekla.
Jaitsi pantaila	Sakatu Zuriunea tekla.
Joan we orriaren hasierara	Sakatu T
Joan we orriaren amaierara	Sakatu B

Egutegiaren lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Eguneko ikuspegian lan egiteko lasterbideentzako, sakatu  tekla > **Aukerak**. Sakatu **Egutegiaren bistaratzea eta ekintzak** Garbitu **Gaitu sarrera azkarra** kontrol-laukia.

Hitzorduak antolatu	Sakatu C
Aldatu Agenda ikuspegira	Sakatu A
Aldatu Egun ikuspegira	Sakatu D
Aldatu Aste ikuspegira	Sakatu W
Aldatu Hilabete ikuspegira	Sakatu M
Mugitu Agendako ikuspegiko hurrengo astera, hilabetera edo egunera	Sakatu Zuriunea tekla.

Mugitu Agenda ikuspegiko aurreko astera, hilabetera eta egunera	Sakatu Maius tekla eta Zuriunea tekla.
Joan uneko data	Sakatu T
Mugitu data jakin batera	Sakatu G

Lasterbideak bilatu

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Bilatu elementu bat zure BlackBerry® gailuan	Hasi hasierako pantailan idazten.
Bilatu kontaktu bat kontaktuen zerrendan	Idatzi kontaktuaren izen osoa edo zati bat edo idatzi lehen letrak zuriune batez bereizita.
Bilatu testua mezu batean	Sakatu S
Bilatu testua fitxategi edo eranskin batean	Sakatu F
Bilatu testua web orrialde batean	Sakatu F
Bilatu testua aurkezpen batean	Sakatu F

Oharra: Hasierako pantailan idazten duzunean zer gertatzen den alda dezakezu.

Aurkezpen batean testua bilatzeko, aurkezpena Ikusi testua moduan edo Ikusi testua eta diaporama moduan ikusi behar duzu.

Mapetako lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Handiagotu mapa	Sakatu I
Txikiagotu mapa	Sakatu O
Mugitu ibilbideko hurrengo helbidera	Sakatu N
Mugitu ibilbideko aurreko helbidera	Sakatu P

Arazoak: lasterbideak

Ezin ditut lasterbideak erabili

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Saiatu sarrerako idazteko hizkuntza aldatzen.

Lotutako gaiak



[Aldatu hizkuntza, 203](#)

Telefonia

Telefonoaren oinarrizko ezagutzak

Bilatu zure telefono zenbakia

Burutu ekintza hauetako bat:

- Zure telefono-zenbaki aktiboa ikusteko, sakatu Hasierako pantailako  tekla.
- BlackBerry® gailuarekin asoziatuta telefono zenbaki bat baino gehiago badituzu, telefono zenbakien zerrenda ikusteko, sakatu Hasierako pantailako  tekla. Zure hari gabeko zerbitzu-planak testu-mezuak onartzen baditu, zerrendako lehen telefono-zenbakia izango da testu-mezuak bidaltzeko eta jasotzeko erabiliko dena.



Lotutako gaiak

[Telefono zenbaki anitzei buruz, 54](#)

[Nire telefono zenbakia ezezagun gisa ageri da Telefonia aplikazioan, 58](#)


Deitu

1. Burutu ekintza hauetako bat:

- BlackBerry® gailua desblokeatuta badago, sakatu  tekla.
- Gailua blokeatuta badago eta ez baduzu desblokeatu nahi, sakatu  tekla > **Egin deia**.

2. Idatzi telefono-zenbaki bat edo kontaktu baten izena.

3. Sakatu  tekla.

Deia amaitzeko, sakatu  tekla.

Lotutako gaiak

[Telefono zenbaki batean pausa edo itxaron bat gehitzeko, 177](#)


[Ahots komando erabilgarriak, 60](#)

[Blokeatutako pantailatik markatzea gaitu, 55](#)

[Ezin ditut deiak egin eta jaso, 58](#)

Erantzun dei bati

Sakatu  tekla.

Deia amaitzeko, sakatu  tekla.

Lotutako gaiak

[Dei-tonuak, jakinarazleak edo gogorazleak aldatu, 9](#)

[Ezin ditut deiak egin eta jaso, 58](#)

Bigarren dei bati erantzun

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke gimbide hau bateragarria ez izatea.


Dei batean zaudela, sakatu  tekla.

- Deiari erantzuteko eta uneko deia zain uzteko, sakatu **Erantzun - Unekoa zain jarri**.
- Deiari erantzuteko eta uneko deia amaitzeko, sakatu **Erantzun - Unekoa txandakatu**.

Lehenengo deira itzultzeko, sakatu  tekla > **Trukatu** edo **Flasha**.

Dei-tonuak, jakinarazleak edo gogorazleak aldatu

Tonua aldatzeaz gainera, deia abian dela bolumenaren, LEDaren, bibrazioaren eta jakinarazpenaren tonuen aukerak alda ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak > Hautatutako profilarentzako soinuak**.
 - Dei-tonua aldatzeko, sakatu **Telefonia**.
 - Jakinarazpenak edo gogorazleak aldatzeko, sakatu atala zabaltzeko. Sakatu aukera bat.
3. **Dei-tonua, Jakinarazpen-tonua** edo **Gogorazle-tonua** eremuan, egin hauetako bat:
 - Sakatu tonu bat.
 - BlackBerry® gailuan edo memoria-txartelean dagoen abesti bat erabiltzeko, sakatu **Musika guztia**. Bilatu eta sakatu abesti bat.
 - Grabatu duzun ahots-ohar bat erabiltzeko, sakatu **Ahots-ohar guztiak**. Aurkitu eta sakatu ahots-ohar bat.
 - Aurrez kargatutako alerta bat erabiltzeko, sakatu **Alerta guztiak**. Bilatu eta sakatu alerta bat.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Lotutako gaiak

[Ezin dut aldatu nire gailuak jotzen duen tonu kopurua, 59](#)

Mututu dei bat

Deiak dirauen bitartean, sakatu  tekla gailuaren goialdean.

Mututzea desaktibatzeko, sakatu  tekla berriro.


Deiak itxaroten utzi


Zure BlackBerry® gailua CDMA sare batera konektatuta badago, ezin dituzu deiak itxaroten utzi.

Dei batean zaudela, sakatu  tekla > **Zain jarri**.

Dei bati berrekiteko, sakatu  tekla > **Berrek**in.

Bozgorailua gaitu

KONTUZ: Ez mantendu BlackBerry® gailua belarri ondoan bozgorailua erabiltzen duzun bitartean. Entzumen kalteak gertatu litezke. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi *Segurtasun eta produktuaren informazioa* gailuaren liburuxka. Deia abian dela, sakatu teklatuko  tekla.

Bozgorailua desaktibatzeke, sakatu  tekla berriro.

Lotutako gaiak

[Bluetooth teknologia, 236](#)

Luzapenak markatu

1. Sakatu **X** tekla.
2. Idatzi luzapen zenbakia.

Zenbakiak edo hizkiak erabiliz markatu

Telefono zenbaki batean letra bat idazten duzunean, BlackBerry® gailuak mugikorren ohiko teklatueta letra horrekin lotuta dagoen zenbakia markatzen du.

- Zenbaki bat idazteko, sakatu zenbaki tekla bat.
- Letra bat idazteko, eduki sakatuta **Alt** tekla. Sakatu hizki tekla.

Aldatu aplikazioen artean dei bat egiten ari zarela

Dei batean zaudela, sakatu  tekla > **Aldatu aplikazioa**.

Oharra: Aplikazio desberdin batera aldatzen bazara eta deia amaitu nahi baduzu, sakatu  tekla.

Aurikularrak erabili

Aukerako aurikularrak eros ditzakezu BlackBerry® gailuarekin erabiltzeko.

Aurikularrak erabiltzen badituzu, horien botoiak erabil ditzakezu deiak erantzuteko eta amaitzeko, edo dei batean zehar mututzeko aukera aktibatzeke eta desaktibatzeke. Gailuaren modeloaren arabera, aurikularretako botoi bat erabil dezakezu ahots komandoen bidez deiak egiteko.

Aurikularren arabera, horien botoi bat erabil dezakezu audio eta bideo fitxategiak saltatzeko, pausatzeko, haiei berrekiteko edo haien bolumena doitzeko.

Aurikularrak erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus aurikularrekin jasotako dokumentazioa.

Larrialdi deiak

Larrialdi-deiei eta Larrialdi atzeradei moduari buruz

Hari gabeko estalduratik kanpo bazaude eta, pantailaren goialdean, SOS hari gabeko estaldura adierazlea agertzen bada, larrialdi-zenbakietara soilik dei dezakezu. Blokeatuta dagoenean ere larrialdi-deiak egin ahal izateko diseinatuta dago BlackBerry® gailua. Gailuaren modeloaren eta gailua konektatuta dagoen hari gabeko sarearen arabera, SIM txartela sartuta ez dagoenean ere larrialdi-deiak egiteko diseinatuta dago gailua. Larrialdi-dei bat egin duzunean hari gabeko sarerako konexioa desaktibatuta badago, hari gabeko sarera automatikoki konektatzeko diseinatuta dago gailua. Larrialdi-zenbaki ofizialak (adibidez, 092 edo 112) markatuz soilik egin ditzakezu larrialdi-deiak.








Oharra: Ez zenuke hari gabeko gailuen menpe egon behar oinarrizko komunikazioetarako, ezta osasun-larrialdietarako ere. Baliteke kokapenaren arabera kokapenak aldatzea eta baliteke sareek, inguruneak edo interferentzia-arazoez larrialdi-deiak blokeatzea edo eragozte.

Gailua CDMA sare batera konektatuta badago, larrialdi-deia amaitzen duzunean, Larrialdi atzeradei modua aktibatzen da gailuan. Operadoreak zu deitzea edo zure gutxi gorabeherako kokapena zehaztea ahalbidetzen du modu honek. Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, Larrialdi atzeradei modua 5 minututan edo larrialdi deia ez den beste dei bat egiten arte egongo da aktibo. Larrialdi atzeradei moduan, ezin dituzu mezuak jaso edo bidali, ezta web orriak arakatu ere.

Gailuak GPSa onartzen badu eta larrialdi dei bat egiten baduzu, larrialdi operadoreak GPS teknologia erabil lezake zure kokapena kalkulatzeko.

Larrialdi dei bat egin




Burutu ekintza hauetako bat:

- Teklatua edo BlackBerry® gailua desblokeatuta badago, sakatu Hasierako pantailako  tekla. Idatzi larrialdi-zenbakia. Sakatu  tekla.
- Gailua blokeatuta badago, sakatu  tekla > **Larrialdia**. Sakatu  tekla.
- Teklatua blokeatuta badago, sakatu  tekla gailuaren goialdean. Sakatu  tekla. Idatzi larrialdi-zenbakia. Sakatu  tekla.

Bolumena

Doitu bolumena

- Bolumena igotzeko, sakatu BlackBerry® gailuaren eskuinaldean dagoen **bolumena igotzeko** tekla.
- Bolumena jaisteko, sakatu zure gailuaren eskuinean dagoen **Bolumena jaitsi** tekla.

- Bolumena mututzeko, sakatu  zure gailuaren goialdean. Mututzea desaktibatuzko, sakatu  tekla berriro. Dei batean zaudela  tekla sakatzen baduzu, zure gailuak deia mututuko du. Hortaz, deian daudenak entzun ahal izango dituzu, baina haiek ezingo zaituzte zu entzun.

Lotutako gaiak




[Mututu dei bat, 42](#)

[Bolumena areagotu audioa areagotzeko eginbidea erabiliz, 125](#)

[Multimedia fitxategien soinuaren kalitatea hobetu, 125](#)

Aldatu deien bolumen lehenetsia

Deien bolumen lehenetsia igo edo jaitsi dezakezu. Bolumenaren ehunekoa zenbat eta altuago, hainbat eta altuagoa izango da bolumena.

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.
3. Aldatu **Deiaren bolumen lehenetsia** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.




Dei batean zaudela soinuaren kalitatea hobetu

Soinuaren kalitatea ezin da aldatu Bluetooth® gaitasuneko aurikular bat erabiltzen ari zarenean.

1. Dei batean zaudela, sakatu  tekla > **Deiaren audio hobetua**.
2. Hautatu baxuen edo altuen aukera bat.

Dei guztien soinu kalitatea hobetu

Soinuaren kalitatea ezin da aldatu Bluetooth® gaitasuneko aurikular bat erabiltzen ari zarenean.

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Audio hobetua**.
3. Aldatu **Telefono deiaren audioa** edo **Aurikular deiaren audioa** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.



Ahots posta

Zure ahots postaren agurrari eta ahots postaren pasahitzari buruz

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, zure ahots postaren agurra edo pasahitza aldatzeko metodoa ezberdina izan daiteke. Zure ahots postaren agurra edo pasahitza aldatzeko eta ahots posta entzuteko aukeretara sartzeko gai izan beharko zenuke. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

Ahots posta egiaztatu

Zure gaiaren arabera, baliteke hasierako pantailatik ahots posta egiaztatu ahal izatea.

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Deitu ahots postontzira**.



Lotutako gaiak

[Ezin naiz ahots postara sartu, 58](#)

Ahots-postara sartzeko zenbakia eta pasahitza aldatu

Oraindik ez bada zure BlackBerry® gailuan ahots postarako sarbide zenbakirik ezarri, sarbide zenbakia idatz dezakezu ahots postako beste sistema desberdin baterako.

Oharra: Gailuan ahots-postaren pasahitza aldatzen baduzu, ahots postaren sistemara ere deitu behar duzu, han ere pasahitza aldatzeko. Bestela, ahots postaren pasahitza ez da eguneratuko ahots postaren sistematan.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Bidali** tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Ahots posta**.
3. Idatzi ahots postarako sarbide zenbaki bat eta pasahitz bat.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Lotutako gaiak

[Ezin naiz ahots postara sartu, 58](#)

Deia ahots-postara joan aurretik gailuak zenbat aldiz joko duen zehaztu

Deia ahots-postara desbideratu aurretik, BlackBerry® gailuak zenbat aldiz joko duen aldatzeko, hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen ahots-postaren sistemara deitu behar duzu. Bere ahots-postaren sistema du hari gabeko zerbitzu-hornitzaile bakoitzak. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.


1. Deitu hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen ahots-postaren sistemara.
2. Entzun aukerak eta jarraitu emandako argibideak.

Lotutako gaiak

[Ezin dut aldatu nire gailuak jotzen duen tonu kopurua, 59](#)

Markatze bizkorra




Konfiguratu markatze bizkorra kontaktu bateri

1. Hasierako pantailan, sakatu **Bidali** tekla.
2. Sakatu  tekla > **Ikusi** > **Markatze bizkorren zerrenda**.
3. **Markatze bizkorreko zenbakiak** zerrendan, sakatu esleitu gabeko tekla bat.

4. Sakatu kontaktu bat.
5. Beharrezkoa bada, sakatu kontaktuarentzako telefono zenbaki bat.

Markatze bizkorra erabiliz dei bat egiteko, Telefonia aplikazioan, Hasierako pantailan, mezu batean edo mezu zerrenda batean zaudela, eduki sakatuta kontaktuari esleitu diozun tekla.




Aldatu markatze bizkorreko tekla bati esleitutako kontaktua

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Ikusi** > **Markatze bizkorren zerrenda**.
3. Nabarmendu kontaktu bat edo telefono zenbaki bat.
4. Sakatu  tekla.
 - Markatze bizkorreko tekla bati esleitutako kontaktua aldatzeko, sakatu **Editatu**. Klikatu kontaktu berri bat.
 - Kontaktua markatze bizkorreko beste tekla bati esleitzeko, sakatu **Mugitu**. **Markatze bizkorreko zenbakien** zerrendan, sakatu markatze bizkorreko beste tekla bat.
 - Kontaktua **Markatze bizkorreko zenbakien** zerrendatik ezabatzeko, sakatu **Ezabatu**.

Deia zain, dei-desbideraketa eta deia blokeatzea

Itxaron deia aktibatu

Ataza hau burutzeko, hari gabeko zerbitzu hornitzaileak zure SIM txartela edo BlackBerry® gailua konfiguratu behar du zerbitzu hori erabiltzeko.

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Itxaron deia**.
3. Hautatu **Gaituta** kontrol laukia.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Itxaron deia desaktibatzeke, garbitu **Gaituta** kontrol laukia.




Dei desbideratzeari buruz

Zure haririk gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke jada hainbat dei desbideratze telefono eskuragarri egotea zure SIM txartelean edo BlackBerry® gailuan. Baliteke telefono hauek aldatzeko edo ezabatzeko eta berriak gehitzeko gai ez izatea.

Informazio gehiagorako, jar zaitetz harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

Deiak desbideratu

Ataza hau burutzeko, zure hari gabeko zerbitzu hornitzaileak zure SIM txartela edo BlackBerry® gailua konfiguratu behar du zerbitzu hori erabiltzeko.







1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Deiak Desbideratzea**.
 - Dei guztiak deiak desbideratzeko zenbaki batera bidaltzeko, **Deiak desbideratu** eremuan hautatu **Beti. Dei guztiak desbideratu** eremuan hautatu deiak desbideratzeko zenbaki bat.
 - Erantzun gabeko deiak soilik desbideratzeko, **Deiak desbideratu** eremuan hautatu **Baldintzatuta. Okupatuta badago, Erantzuten ez badu, eta Lokalizatu ezin bada** eremuetan hautatu deiak desbideratzeko zenbaki bat.
3. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Deiak desbideratzeko ezarpenak ondorengo sarrerako dei guztiei aplikatzen zaizkie, ezarpenak berriro aldatzen dituzun arte.

Deiak desbideratzeari uzteko, **Deiak desbideratu** eremuan hautatu **Inoiz ez**.

Deia desbideratzeko zenbakia gehitu, aldatu edo ezabatu

Ataza hau burutzeko, hari gabeko zerbitzu hornitzaileak zure SIM txartela edo BlackBerry® gailua konfiguratu behar du zerbitzu hori erabiltzeko.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Bidali** tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Deiak desbideratzea**.
3. Sakatu  tekla.
 - Deia desbideratzeko zenbakia gehitzeko, sakatu **Zenbaki berria**. Idatzi telefono zenbaki bat. Sakatu teklatuko  tekla.
 - Deia desbideratzeko zenbakia aldatzeko, sakatu **Editatu zenbakiak**. Nabarmendu telefono zenbaki bat. Sakatu  tekla > **Editatu**. Aldatu telefono zenbakia. Sakatu teklatuko  tekla.
 - Deia desbideratzeko zenbakia ezabatzeko, sakatu **Editatu zenbakiak**. Sakatu telefono zenbaki bat. Sakatu **Ezabatu**.
4. Sakatu  tekla > **Itxi**.




Deiak blokeatzeari buruz


Blokeatutako deiak ezaugarriaren bidez, sarrerako dei guztiak blokeatu ditzakezu beti edo ibiltaritzan zaudenean bakarrik. Irteerako dei guztiak eta irteerako nazioarteko dei guztiak ere blokeatu ditzakezu, beti edo ibiltaritzan bakarrik.

Blokeatutako deia ezaugarria erabiltzeko, zure BlackBerry® gailuak SIM txartela izan behar du eta zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzaileak zure SIM txartela zerbitzu horretarako konfiguratu eta deiak blokeatzeko pasahitz bat eman behar dizu. Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.




Deiak blokeatu

Ataza hau burutzeko, zure BlackBerry® gailuak SIM txartela erabili behar du eta hari gabeko zerbitzu hornitzaileak zure SIM txartela konfiguratu behar du zerbitzu honetarako eta deiak blokeatzeko pasahitza eman behar dizu.

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Deien debekua**.
3. Nabarmendu deiak blokeatzeko aukera bat.
4. Sakatu  tekla > **Gaitu**.
5. Idatzi deiak blokeatzeko pasahitza.

Deiak blokeatzeari uzteko, nabarmendu deiak blokeatzeko aukera bat. Sakatu  tekla > **Desgaitu**.

Deiak blokeatzeko pasahitza aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Deien debekua**.
3. Sakatu  tekla > **Aldatu pasahitza**.

Markatze finkoa eta markatze adimenduna

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke gimbide hau bateragarria ez izatea.

Markatze finkoari buruz





Markatze finkoa gaitzen baduzu, zure markatze finkoko kontaktuei eta larrialdi zenbaki ofizialetara (adibidez, 092 edo 112) soilik deitu ahal izango duzu.

Zure hari gabeko zerbitzu planak SMS testu mezularitza barne badu, markatze finkoko zerrendan agertzen diren kontaktuei SMS testu mezua bidal diezazkiekezu ere.

Markatze finkoa erabiltzeko, zure hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak zure SIM txartela zerbitzu honetarako ezarri eta SIM txartelaren PIN2 kode bat eman behar dizu. Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke gimbide hau bateragarria ez izatea.

Markatze finkoa aktibatu

Ataza hau egiteko, zure BlackBerry® gailuak SIM txartela erabili behar du eta hari gabeko zerbitzu hornitzaileak zure SIM txartela konfiguratu behar du zerbitzu honetarako eta SIM txartelerako PIN2 kodea eman behar dizu.

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **FDN telefonoen zerrenda**.
3. Sakatu  tekla > **Gaitu FDN modua**.
4. Idatzi zure PIN2 kodea.
5. Sakatu teklatuko  tekla.







Markatze finkoa desaktibatzeko, sakatu  tekla > **Desgaitu FDN modua**.

Lotutako gaiak

[Ezin ditut deiak egin eta jaso, 58](#)

Markatze finkoko zerrendan kontaktua gehitu, kendu edo ezabatu

Ataza hau burutzeko, hari gabeko zerbitzu hornitzaileak zerbitzu horretarako konfiguratu behar du zure SIM txartela eta SIM txartelerako PIN2 kodea eman behar dizu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Bidali** tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **FDN telefonoen zerrenda**.
 - Kontaktua bat gehitzeko, sakatu  tekla > **Berria**. Idatzi zure PIN2 kodea. Sakatu  tekla. Idatzi izen bat eta telefono-zenbaki bat.
 - Kontaktua bat aldatzeko, sakatu  tekla > **Editatu**. Aldatu kontaktuaren informazioa.
 - Kontaktua bat ezabatzeko, nabarmendu kontaktu bat. Sakatu  tekla > **Ezabatu**.
3. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Markatze adimenduari buruz



Markatze adimenduaren eginbidearekin, telefono zenbakien herrialde kodea eta area kodea lehenets ditzakezu dei bat egiten duzun bakoitzean kode horiek idatzi behar ez izateko, markatzen duzun zenbakiaren herrialde edo area kodea lehenetsitakoaren berdina ez bada behinik behin. Markatze adimenduaren eginbideak ez ditu zenbait herrialde kode onartzen.


Era berean, markatze adimenduaren aukeretan, maiz erabiltzen duzun enpresa baten telefono zenbaki nagusia zehatz dezakezu, enpresa horretako kontaktu bati deitzen diozun bakoitzean haren luzapena bakarrik markatu behar izan dezazun. Enpresa horretako kontaktuak kontaktuen zerrendan gehitzerakoan, haien luzapena bakarrik idatz dezakezu, enpresaren telefono zenbaki nagusia idatzi ordez.

Lotutako gaiak

[Ezin ditut deiak egin eta jaso, 58](#)




Herrialde kode eta eremu kode lehenetsiak ezarri

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Markatze adimendua**.
3. Ezarri **Herrialde kodea** eta **Eremu kodea** eremuak
4. Beharrezkoa bada, ezarri **Herrialde kode lokala** eta **Atzerritik markatzeko zenbakiak** eremuak .

5. **Telefono zenbaki nazionalen luzera** eremuan, ezarri zure herrialderako telefono zenbakien luzera lehenetsia.
6. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Oharra: Telefono zenbakien luzera lehenetsia zehazterakoan, kontuan hartu zure eremu kodea eta tokiko zenbakia, baina sartu zure herrialde kodea eta markatze zuzenerako aurrezenbakia.

Ezarri luzapenetarako aukerak

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Markatze adimendua**.
3. **Zenbakia** eremuan, idatzi erakunde baten telefono zenbaki nagusia.
4. **Honen zain** eremuan, ezarri zure BlackBerry® gailuak zenbat itxaron behar duen luzapen bat markatu baino lehenago.
5. **Luzapenaren luzera** eremuan, ezarri luzapenetarako luzera lehenetsia.
6. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Konferentzia deiak




Konferentzia deiei buruz

Bi motatako konferentzia deiak egin ditzakezu BlackBerry® gailuarekin. Zure enpresak edo konferentzia zerbitzu batek konferentzia deirako zenbakia eman badizu, konferentzia dei bidezko bilerak sor ditzakezu zure gailuko edo ordenagailuko egutegian. Konferentzia deietan BlackBerry gailua duten parte hartzaileak sakatze bakarreko Parte hartu orain aukerarekin sar daitezke konferentzia dei bidezko bilera, gailuak eginbide hori onartzen badu. Horrela, ez dituzte konferentzia deiaren zenbakia eta kodeak markatu behar. Konferentzia deiaren zenbakirik ez baduzu, konferentzia deia sortzeko kontaktuei dei egin diezaiekezu eta, ondoren, deiak elkartu.

Egin konferentzia dei bat

Zure hari gabeko zerbitzu hornitzailearen edo hari gabeko zerbitzu planaren arabera, baliteke eginbide hau ez onartzea.

Zure BlackBerry® gailua CDMA sare batera konektatuta badago, ezin izango duzu bi kontaktu baino gehiago sartu konferentzia dei batean.

1. Dei batean zaudela, sakatu  tekla > **Gehitu parte hartzailea**.
2. Idatzi telefono zenbaki bat edo nabarmendu kontaktu bat.
3. Sakatu  tekla.
4. Dei berrian zaudela, sakatu  tekla zure lehen kontaktua konferentzia deira sartzeko.
5. Deira beste kontaktu bat sartzeko, errepikatu 1etik 4rako pausoak.

Lotutako gaiak


[Deiak itxaroten utzi, 42](#)


Konferentzia dei baterako telefono zenbaki esteka bat sortu

1. Idatzi konferentzia dei zubiarentzako telefono zenbakia.
2. Idatzi **X** eta sarrera kodea.

Hitz egin era pribatuan kontaktu batekin konferentzia dei bat egiten ari zarela


Dei desberdinak elkartuz konferentzia dei bat egiten duzunean baino ezingo duzu ataza hori bideratu eta ezingo duzu egin konferentzia dei baterako hitzordua sortzen baduzu egutegian.

1. Konferentzia dei batean zaudela, sakatu  tekla > **Dei pribatua**.
2. Sakatu kontaktu bat.

Konferentzia deira itzultzeko, sakatu  tekla > **Bat egin**.

Kontaktu bat konferentzia dei batetik deskonektatu

Dei desberdinak elkartuz konferentzia dei bat egiten duzunean baino ezingo duzu ataza hori bideratu eta ezingo duzu egin konferentzia dei baterako hitzordua sortzen baduzu egutegian.

1. Konferentzia dei batean zaudela, sakatu  tekla > **Deia txandakatzea**.
2. Sakatu kontaktu bat.

Konferentzia deiak utzi

Dei desberdinak elkartuz konferentzia dei bat egiten duzunean baino ezingo duzu ataza hori bideratu eta ezingo duzu egin konferentzia dei baterako hitzordua sortzen baduzu egutegian.

Konferentzia dei bat egiten duzunean, konferentzia deia utz dezakezu eta deiak aurrera jarraituko du zu gabe. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

Konferentzia dei batean zaudela, sakatu  tekla > **Transferentzia edo Flasha**

Dei erregistroak




Deien erregistroei buruz

Deien erregistroan telefono aplikazioan agertzen dira eta dei berrien egoera erakusten ditu dei galdu baten adierazlearekin, egindako dei baten adierazlearekin edo jasotako dei baten adierazlearekin. Deien erregistroak deiaren data, telefono zenbakia eta deiaren iraupena barne hartzen ditu. Dei baten iraupen zehatzaren informazio gehiagorako, jarri harremanetan zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.



Telefonoen zerrenden ikuspegi aukerak deien erregistroak telefono aplikazioan nola agertzen diren hautatzen laguntzen du. Zure deien erregistroa nola konfiguratu duzun arabera, deien erregistroak mezuen aplikazioan ikus ditzakezu ere. Zure gaiaren arabera, dei bat galtzen duzunean, dei galdu baten adierazle bat hasierako pantailaren goialdean ager daiteke ere.

Deien erregistroetan oharrak gehi ditzakezu ere edo deien erregistroak mezu elektronikoko gisa bidal ditzakezu. Deien erregistro bat ezabatzen ez baduzu, honako zure BlackBerry® gailuan 30 egunetan zehar gordetzen da.




Dei erregistro bat bidali



1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Nabarmendu deien erregistroren bat.
3. Sakatu  tekla > **Ikusi** > **Ikusi historia**.
4. Sakatu  tekla > **Birbidali**.

Dei erregistroak ezabatu



1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Burutu ekintza hauetako bat:
 - Dei-erregistro bakarra ezabatzeko, nabarmendu dei-erregistroa.
 - Dei-erregistro ugari ezabatzeko, nabarmendu dei baten erregistroa. Eduki sakatuta **MAIUS** tekla. Nabigazio-tekla, irristatu hatza gora edo behera. Askatu **MAIUS** tekla.
3. Sakatu  tekla > **Ezabatu**.

Deien erregistroko oharrak gehitu, aldatu edo ezabatu

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Nabarmendu deien erregistroren bat.
3. Sakatu  tekla > **Ikusi** > **Ikusi historia**.
4. Sakatu deien erregistro bat.
5. Sakatu  tekla.

- Oharrak gehitzeko, sakatu **Gehitu oharrak**. Idatzi dei oharrak.
 - Oharrak aldatzeko, sakatu **Editatu oharrak**. Aldatu dei oharrak.
 - Oharrak ezabatzeko, sakatu **Editatu oharrak**. Sakatu  tekla > **Garbitu eremua**.
6. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Mezuen aplikazioan deien erregistroak ikusi

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Deien erregistroak eta zerrendak**.
 - Duela gutxi egindako deiak eta dei galduak mezuen aplikazioan ikusteko, hautatu **Dei guztiak** aukera.
 - Mezuen aplikazioan deien erregistroak ezkutatzeko, hautatu **Bat ere ez** aukera.

Telefono zenbaki anitzak

Telefono zenbaki anitzei buruz

Telefono zenbaki bat baino gehiago baduzu BlackBerry® gailuarekin erlazionatuta, telefono zenbaki aktibo gisa erabiltzen ari zaren zenbakia alda dezakezu. Gailuarekin erlazionatuta zenbaki bat baino gehiago dituzula jakin dezakezu, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- SIM txartela badarabilzu eta zure SIM txartelak telefono zenbaki bat baino gehiago onartzen baditu.
- Zure hari gabeko zerbitzu hornitzaileak gailua telefono zenbaki bat baino gehiago onartzeko konfiguratu badu.
- Zure hari gabeko zerbitzu hornitzaileak telefono zenbaki bat eman badizu eta zure enpresak BlackBerry® MVS Client bezeroaren telefono zenbaki bat eman badizu.

Zure SIM txartelak telefono zenbaki bat baino gehiago onartzen baditu, zure telefono zenbaki aktiboa erabiliz soilik egin ditzakezu telefono deiak, baina zure telefono zenbaki guztietara egindako deiak jasoko dituzu. Dei bat abian baduzu, telefono zenbaki aktibora egindako deiak soilik jasoko dituzu, eta zure gainerako telefono zenbakietara egindako deiek okupatuta zaudenaren seinalea jasoko dute edo ahots postontzira desbideratuko dira.


Zure hari gabeko zerbitzu hornitzaileak gailua telefono zenbaki bat baino gehiago onartzeko konfiguratu badu, telefono zenbaki aktiboaren bidez soilik egin eta jaso ditzakezu deiak. Zure gainerako telefono zenbakietara egindako deiek okupatuta zaudenaren seinalea jasoko dute edo ahots postontzira desbideratuko dira.

Zure hari gabeko zerbitzu hornitzaileak telefono zenbaki bat eman badizu eta zure enpresak BlackBerry MVS Client bezeroaren telefono zenbaki bat eman badizu, zure telefono zenbaki aktiboa erabiliz soilik egin ditzakezu telefono deiak, baina zure telefono zenbaki guztietara egindako deiak jasoko dituzu. Dei bat abian baduzu, zure telefono zenbaki guztietara egindako deiak jasoko dituzu.

Hari gabeko zerbitzu planak testu-mezularitza onartzen badu, Telefonia aplikazioaren goialdean kokatutako goitibeherako zerrendan agertzen den lehen telefono-zenbakia erabiliko duzu testu-mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.

Zure gailuarekin erlazionatutako telefono zenbaki bakoitzaren itxaron deien, deien desbideratzeen eta ahots postontziaren aukerak alda ditzakezu.

Telefono zenbaki aktiboa aldatu


1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu pantailaren goialdean agertzen den zure telefono-zenbakia.
3. Sakatu telefono-zenbaki aktibo gisa ezarri nahi duzun telefono-zenbakia.

Lotutako gaiak




[Nire telefono zenbakia ezezagun gisa ageri da Telefonoa aplikazioan, 58](#)
[Ezin ditut deiak egin eta jaso, 58](#)

Telefonoaren aukerak

Blokeatutako pantailatik markatzea gaitu



1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna > Pasahitza**.
3. Hautatu **Baimendu irteerako deiak blokeatuta dagoenean** kontrol laukia.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Ordenatu telefonoaren pantailako telefono zenbakiak edo kontaktuak

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak > Deien erregistroak eta zerrendak**.
 - Telefono zenbakiak edo kontaktuak erabilpenaren maiztasunaren arabera ordenatzeko, aldatu **Telefonoen zerrendaren ikuspegia** eremua **Erabili** jarri dezan.
 - Kontaktuak izenaren arabera alfabetikoki ordenatzeko, aldatu **Telefonoen zerrendaren ikuspegia** eremua **Izena** jarri dezan.
 - Telefono zenbakiak edo kontaktuak erabilpenaren berritasunaren arabera ordenatzeko, aldatu **Telefonoen zerrendaren ikuspegia** eremua **Berriena** jarri dezan.
3. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Deiak egiterakoan zure telefono zenbakia erakutsi edo ezkutatu



Hari gabeko sareak zuk aukeratutako aukera gainidatz dezake.

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak > Sarrerako deien ezarpenak**.
 - Deiak egiterakoan zure telefono zenbakia ezkutatzeko, hautatu **Murriztu nire identitatea** eremuan **Beti**.
 - Deiak egiterakoan zure telefono zenbakia erakusteko, hautatu **Murriztu nire identitatea** eremuan **Inoiz ez**.
 - Hari gabeko sareak telefono zenbakia erakutsi edo ezkutatu behar duen erabakitzea baimentzeko, **Murriztu nire identitatea** eremuan hautatu **Sareak zehaztua**.




3. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Elementuak ezabatu baino lehen agertzen den gonbita ezgaitu

Mezuak, dei erregistroak, kontaktuak, egutegiko sarrerak, egitekoak, memorandumak edo pasahitzak ezabatzen dituzunean agertzen den gonbita desaktiba dezakezu.




1. Hasierako pantailan, sakatu elementuak ezabatzen dituzunean agertzen den onbitaren aplikazioaren ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. Beharrezkoa bada, sakatu **Aukera orokorrak**.
4. Garbitu **Berretsi ezabatzea** kontrol laukia.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Zorroarekin deiak nola erantzun edo amaitu aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.
 - Zure BlackBerry® gailua zorrotik ateratzean deiak automatikoki erantzuteko, hautatu **Erantzun automatikoki deiak** eremuan **Zorrotik kanpo**.
 - Gailua zorrotik ateratzean deiak automatikoki erantzuteari uzteko, hautatu **Erantzun automatikoki deiak** eremuan **Inoiz ez**.
 - Zure gailua zorroan sartzen duzunean deiak automatikoki amaitzeko, hautatu **Amaitu automatikoki deiak** eremuan **Zorroan**.
 - Gailua zorroan sartzerakoan deiak automatikoki amaitzeari uzteko, hautatu **Amaitu automatikoki deiak** eremuan **Inoiz ez**.
3. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Berrezarri deien kontagailu bat

Deien kontagailuak deien gutxi gorabeherako iraupena kalkulatzen du. Dei baten iraupen zehatzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin.




1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Egoera** > **Azkeneko deia** edo **Deiak guztira** > **Garbitu kontagailua**.
3. Sakatu  tekla > **Gorde**.

TTY laguntzari buruz

TTY laguntza konektatzen duzunean eta zure BlackBerry® gailua segunduko 45.45 biteko abiadura dabilen TTY gailu batekin konektatzen denean, TTY gailuen deiak jaso eta horiei deitu diezaiekezu. Jasotako deiak zure TTY gailuan irakurtzeko moduko testu bihurtzeko diseinatu da zure BlackBerry gailua.

Zure TTY gailua 2.5 milimetroko entxufea duten entzungailuekin erabiltzeko diseinatu bada, moldagailu bat erabili beharko duzu zure TTY gailua zure BlackBerry gailura konektatzeko. Research In Motion-ek zure BlackBerry gailuarekin erabiltzeko onetsi duen moldagailua eskuratu nahi baduzu, bisitatu www.shopblackberry.com.

TTY laguntza aktibatu






1. Hasierako pantailan, sakatu  tekla.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak** > **TTY**.
3. Hautatu **TTY Modua** eremuan **Bai**.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

TTY adierazle bat agertuko da konexioen eremuan, hasierako pantailaren goialdean.

TTY laguntza desaktibatuzeko, hautatu **TTY Modua** eremuan **Ez**.

Telefonoaren lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Aldatu telefonoaren dei-tonua	Hasierako pantailan, sakatu  tekla. Sakatu  tekla > Deskargatu dei-tonuak .
Ahots posta egiaztatu	Eduki sakatuta 1 .
Konfiguratu markatze bizkorra kontaktu bateri	Hasierako pantailan edo telefonoaren aplikazioan, eduki sakatuta markatze azkarra esleitu nahi diozun tekla
Gehitu luzapena telefono-zenbaki bati	Sakatu Alt tekla eta X . Idatzi luzapen-zenbakia.
Idatzi letra bat telefono-zenbakiaren eremuan	Sakatu Alt tekla eta letra tekla.
Idatzi gehi zeinua (+) telefono-zenbakia idazten duzunean	Sakatu O
Aktibatu edo desaktibatu bozgorailua deian	Sakatu  tekla teklatuan.
Utzi deia hari gabeko entzungailuan entzuteari	Sakatu  tekla teklatuan.
Aldatu telefono-zenbaki aktiboa	Hasierako pantailan, sakatu  tekla. Sakatu pantailaren goialdeko telefono zenbakia. Sakatu telefono zenbaki bat.

Arazoak: telefonoa

Ezin ditut deiak egin eta jaso

Hurrengo ekintzak burutzen saiatu:

- Ziurtatu BlackBerry® gailua hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Ziurtatu zure hari gabeko zerbitzu planean telefono eta ahots deiak sartzen direla.
- Deirik egin ezin baduzu eta markatze finkoa aktibatuta badago, egiaztatu kontaktuaren telefono zenbakia markatze finkoaren zerrendan agertzen dela, edo desaktibatu markatze finkoa.
- Atzerrira bidaiatu baduzu eta markatze adimenduaren aukerak aldatu ez badituzu, markatu kontaktuaren telefono zenbaki osoa, herrialde kodea eta eremu kodea barne.
- Deirik jasotzen ez baduzu, egiaztatu deien blokeoa eta desbideratzea desaktibatuta daudela.
- Zure gailuak edo SIM txartelak telefono zenbaki bat baino gehiago onar ditzake, zuk telefono zenbaki bakarria izan arren. Ziurtatu zure telefono zenbakia telefono zenbaki aktibo gisa ezarrita dagoela.
Multimedia fitxategiek erabiltzen duten memoria kopurua ikusi

1. Hasierako pantailan, klikatu **Multimedia** ikonoa.
2. Sakatu **Menua** tekla.
3. Sakatu **Memoria erabilera**.

Multimedia fitxategientzako erabilgarri dagoen memoria kopurua aldatu

Zure BlackBerry® gailuaren errendimendua optimizatzeko, zure gailuak multimedia fitxategientzako erreserbatzen den memoria kopurua alda dezakezu.

BlackBerry® gailuaren modeloaren arabera, baliteke eginbide hau bateragarria ez izatea.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Multimedia** ikonoa.
2. Sakatu **Menua** tekla.
3. Sakatu **Aukerak**.
4. Burutu ekintza hauetariko bat:
 - Multimedia fitxategi guztientzako gehienezko memoria erabilgarria aldatzeko, aldatu **Gailuko memoriaren muga** eremua.
 - Argazkientzako gutxienezko memoria erabilgarria aldatzeko, aldatu **Erreserbatutako irudien memoria** eremua.
5. Sakatu **Menua** tekla.
6. Sakatu **Gorde**.

Lotutako gaiak

[Multimedia fitxategi baten propietateak ikusi, 126](#)

Deskonektatu memoria txartelaren laguntza

Memoria txartelaren laguntza desaktibatzen baduzu, zure BlackBerry® gailuak ezingo du memoria txarteleko fitxategietara sartu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua**.
3. Sakatu **Biltegitratzea**.
4. Garbitu **Memoria txartelaren laguntza** kontrol laukia.

5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Konpresioari buruz

Konpresioa zure BlackBerry® gailuan dauden datuen tamaina murrizteko hauek osorik mantentzen diren bitartean diseinatuta dago. Konpresioa gaituta dagoenean, zure gailuak gailuaren datu guztiak konprimitzen ditu, mezuak, kontaktuak, egutegiko sarrerak, atazak eta memorandumak barne. Konpresioa gaituta eduki beharko zenuke.

Konpresioa eta enkriptatzea gaituta badaude, zure gailuak datuak konprimitzen ditu hauek enkriptatu baino lehen.

Enkriptatzeari buruz


Fitxategien enkriptatzea BlackBerry® gailuaren memorian eta gailuan sartuta egon daitekeen memoria txartel batean gordetzen dituzun fitxategiak babesteko diseinatuta dago. Gailuaren memorian eta memoria txartelean dauden fitxategiak enkripta ditzakezu zure gailuak sortzen duen enkriptatze gako bat, zure gailuaren pasahitza edo biak erabiliz.

Zure gailuak sortzen duen gako bat erabiliz enkriptatzen badituzu fitxategiak, zure memoria txarteleko fitxategietara memoria txartela zure gailuan dagoenean soilik sar zaitezke. Fitxategiak zure gailuko pasahitza erabiliz enkriptatzen badituzu, zure memoria txarteleko fitxategietara sar zaitezke memoria txartela sartzen duzun edozein gailutan, gailuaren pasahitza baldin badakizu.

Enkriptazioa gaitu

Zure BlackBerry® gailuaren memoriako datuak enkriptatzeko, zure gailuarentzako pasahitz bat eduki behar duzu.


Zure gailuan fitxategiak gordetzeko erabilgarri dagoen lekuaren arabera, baliteke zure gailuan fitxategiak ezin enkriptatzea.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna > Enkriptatzea**.
3. Zure gailuan datuak enkriptatzeko, **Gailuaren memoria** atalean, Hautatu **Enkriptatu** kontrol laukia.
4. Memoria txartel batean edo zure gailuan gordetako fitxategiak enkriptatzeko, hautatu **Memoria txartela** kontrol laukia eta burutu ekintza hauetako bat:
 - Zure gailuak sortzen duen enkriptazio gako bat erabiliz fitxategiak enkriptatzeko, hautatu **Modua** eremuan **Gailuaren gakoa**.
 - Zure gailuaren pasahitza erabiliz fitxategiak enkriptatzeko, hautatu **Modua** eremuan **Gailuaren pasahitza**.
 - Fitxategiak enkriptazio gakoa eta zure gailuaren pasahitza erabiliz enkriptatzeko, hautatu **Modua** eremuan **Gailuaren pasahitza eta gailuaren gakoa**.
5. Multimedia fitxategiak, hala nola, irudiak, abestiak eta bideoak enkriptatzeko, hautatu **Gehitu multimedia fitxategiak** kontrol laukia.
6. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Zure gailuan datuak enkriptatzeari uzteko, garbitu **Gailuaren memoria** kontrol laukia. Fitxategiak enkriptatzeari uzteko, garbitu **Memoria txartela** kontrol laukia.


Argazkien karpetak


Irudi karpeta bat sortu


1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa > **Argazkiak** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Karpeta berria**.
3. Beharrezkoa bada, aldatu karpeta sortzeko kokapena.
4. Idatzi izen bat karpetarentzat.
5. Sakatu **Ados**.

Argazkiak aplikaziora argazkiak inportatu

Zure BlackBerry® gailuko edo multimedia txarteletako argazkiak Argazkiak aplikaziora inportatuz zure argazkietarako sarbidea izango duzu eta zure karpeta egiturei eta fitxategien kokapenari eutsiko zaie.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa > **Argazkiak** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Inportatu argazkiak**. **Argazkien liburutegia** karpetan edo **Kamerako argazkiak** karpetan gordeta ez dauden argazkiak dituzten karpetak.
3. Hautatu inportatu nahi dituzun karpeten ondoko kontrol laukiak.
4. Sakatu **Inportatu argazkiak**.

Argazkiak aplikaziotik karpetak ezabatzeko, nabarmendu karpeta. Sakatu  tekla > **Kendu liburutegitik**. Inportatu dituzun karpetak beren jatorrizko kokapenean daude, baina Argazkiak aplikaziotik ezabatu dira.

Argazkiak aplikaziotik eta gailuaren memoriatik edo memoria txarteletik karpetak betiko ezabatzeko, argazkiak ez diren eta Argazkiak aplikazioko karpetan ez dauden fitxategiak barne, nabarmendu karpeta. Sakatu  tekla > **Ezabatu**. Inportatu dituzun karpetak zure gailuko memorian edo memoria txartelean zuten kokapenetatik ezabatu dira.

Kamerarekin hartutako argazki bat bilatu

Kamerarekin hartzen dituzun argazkiak Kamerako argazkiak karpetan gordetzen dira, Argazkiak aplikazioan. Zure argazkiak beste karpeta batzuetan artxibatu badituzu, aurrerantzen ez dira Kamerako argazkiak karpetan agertuko.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa > **Argazkiak** ikonoa.
2. Sakatu **Kamerako argazkiak** karpeta.

Multimedia fitxategiak transferitu eta deskargatu

Multimedia fitxategiak transferitu eta sinkronizatzeari buruz

BlackBerry® gailua ordenagailura konektatu dezakezu USB kable bat erabiliz gailuaren eta ordenagailuaren artean fitxategiak transferitzeko eta sinkronizatzeko, edo Bluetooth-a teknologia erabili dezakezu multimedia fitxategiak bidaltzeko edo Bluetooth-a gaitutako gailutik multimedia fitxategiak jasotzeko.

Zure gailua ordenagailura USB kable baten bidez konektatzen duzunean agertzen den elkarrizketa koadroaren USB aukeraren bidez, ordenagailuko karpeta batean dauden fitxategi gehienak arrasta ditzakezu zure gailuko edo multimedia txarteleko karpeta batera. Elkarrizketa koadroaren multimedia aukeraren bidez, DRMrekin babestutako multimedia fitxategiak zure gailura eta zure gailutik transferi ditzakezu. Bi aukera horien bidez, BlackBerry® Desktop Software erabil dezakezu fitxategiak zure gailura eta zure gailutik transferitzeko.

Gailuaren eta ordenagailuaren artean fitxategiak transferitzen dituzunean multimedia fitxategiekin lotutako informazioa kudeatu eta babestu nahi baduzu, erabili multimedia aukera hemen BlackBerry Desktop Software. BlackBerry Desktop Software ordenagailutik deskargatzeko, bisitatu www.blackberry.com/desktop eta hautatu ordenagailuarentzako aukera egokia.

Fitxategi bat zure ordenagailutik gailura transferitu zure gailua USB memoria unitate gisa erabiliz

BlackBerry® Desktop Software erabili behar duzu zure multimedia fitxategiekin loturiko informazioa edo enkriptatzea kudeatzeko edo gordetzeko, fitxategiak zure BlackBerry gailuaren eta ordenagailuaren artean transferitzen dituzunean.

1. Konektatu gailua ordenagailura USB kable bat erabiliz.
2. Burutu ekintza hauetako bat:
 - Fitxategi mota gehienak transferitu nahi badituzu, zure gailuan agertzen den elkarrizketa koadroan, hautatu USB aukera.
 - DRM bidez babestutako multimedia fitxategiak transferitu nahi badituzu, zure gailuan gertzen den elkarrizketa koadroan, hautatu multimedia transferitzeko aukera.
3. Beharrezkoa bada, idatzi pasahitz bat. Zure gailua unitate gisa agertzen da ordenagailuan.
4. Arrastatu fitxategi bat ordenagailuko kokaleku batetik gailuko karpeta batera.

Zure gailura transferitutako fitxategia ikusteko, deskonektatu gailua ordenagailutik eta bilatu fitxategia.

Lotutako gaiak

[Fitxategi bat zure ordenagailutik gailura transferitu honakoa erabiliz BlackBerry Desktop Software, 29](#)

Fitxategi bat zure ordenagailutik gailura transferitu honakoa erabiliz BlackBerry Desktop Software

With the BlackBerry® Desktop Software erabiliz, multimedia fitxategiak sinkroniza ditzakezu zure BlackBerry gailuan, iTunes erreprodukzio zerrendak eta Windows Media® Player erreprodukzio zerrendak barne. BlackBerry Desktop Software ordenagailutik deskargatzeko, bisitatu www.blackberry.com/desktop eta hautatu ordenagailuarentzako aukera egokia.

1. Konektatu gailua ordenagailura.
2. Zure gailuan agertzen den elkarrizketa koadroan, hautatu fitxategia transferitzeko edozein aukera.
3. Ordenagailuan, ireki BlackBerry Desktop Software.
4. Sakatu egin nahi duzunera hobeto egokitzen den multimedia fitxategia transferitzeko aukera.

Multimedia fitxategiak sinkronizatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Laguntza hemen BlackBerry Desktop Software.


Lotutako gaiak

[Fitxategi bat zure ordenagailutik gailura transferitu zure gailua USB memoria unitate gisa erabiliz, 12](#)

Multimedia fitxategi bat bidali edo partekatu


Ataza hori Bluetooth® gaitasuneko gailu parekatu batekin egiteko, Bluetooth teknologia aktibatu behar duzu.

Zure irudiak eta bideoak parteka ditzakezu instalatuta dituzun aplikazioetan, hala nola, BlackBerry® gailuetarako Facebook® eta BlackBerry gailuetarako YouTube® aplikazioetan.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Multimedia** ikonoa.
2. Sakatu multimedia fitxategi mota.
3. Beharrezkoa bada, sakatu kategoria bat.
4. Nabarmendu multimedia fitxategi bat.
5. Sakatu  tekla.
6. Burutu ekintza hauetako bat:
 - Irudi edo bideo bat bidaltzeko, sakatu **Bidali**. Sakatu mezu mota edo aplikazio bat.
 - Audio fitxategi bat bidaltzeko, sakatu mezu mota bat bidaltzeko aukera.

Multimedia fitxategiak jaso Bluetooth-a teknologia erabiliz

Ataza hori egiteko, Bluetooth® teknologia gaituta egon behar da.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa.
2. Sakatu multimedia fitxategi mota.
3. Sakatu  tekla > **Jaso Bluetooth bidez**.
4. Bidali multimedia fitxategia Bluetooth-a gaitasuneko gailutik.
5. Sakatu **Bai** > **Gorde**.

Lotutako gaiak

Bluetooth teknologia gaitu, 237

Onartutako audio- eta bideo-fitxategiak

Zure BlackBerry® gailuaren modeloaren eta hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke zenbait formatu ez onartzea.



Idatzi	Fitxategiaren formatua
Audioa	<ul style="list-style-type: none"> • MP3 • M4A • WMA • WAV
Bideoa	<ul style="list-style-type: none"> • 3GP • 3GP2 • AVI • ASF • MP4 • MOV • WMV

Zure gailuarentzako kodekei buruz informazio gehiago eskuratzeko, gomendatutako bideoak eskuratzeko eta audio-fitxategien formatuei buruzko informazioa eskuratzeko, bisitatu www.blackberry.com/docs/smartphones helbidea eta sakatu **Multimedia > BlackBerry telefonoetan onartutako multimedia motak**.

Multimedia lasterbideak

Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Audio eta bideo fitxategiak

Pausatu audio edo bideo fitxategi bat	Sakatu  tekla BlackBerry® gailuaren goialdean.
Berrekina audio edo bideo fitxategi baten erreprodukzioari	Sakatu  tekla.
Erreproduzitu hurrengo abestia	Eduki sakatuta gailuaren eskuinaldeko Bolumena igo tekla.
Erreproduzitu aurreko abestia	Eduki sakatuta gailuaren eskuinaldeko Bolumena jaitsi tekla.

Aktibatu audioa areagotzeko eginbidea aurikularrak erabiltzen ari bazara

Audio edo bideo fitxategi bat erreproduzitzerakoan, sakatu **Bolumena igo** tekla gorengo bolumen ezarpenera iritsi arte eta, ondoren, sakatu **Bolumena igo** tekla azkar lau aldiz.

Irudiak

Handiagotu	Sakatu I
Txikiagotu	Sakatu O
Panoramika handiagotu	Sakatu 2
Panoramika txikiagotu	Sakatu 8
Panoramika eskuinera	Sakatu 6
Panoramika ezkerrera	Sakatu 4
Biratu	Sakatu L .

Kamera eta bideo kamera

Handiagotu argazki bat atera edo bideo bat grabatu aurretik	Sakatu Bolumena igo tekla.
Txikiagotu argazki bat atera edo bideo bat grabatu aurretik	Sakatu Bolumena jaitsi tekla.
Atera argazki bat	Sakatu gailuaren alboko Eskuineko egokitze tekla.

Arazoak: multimedia

Nire gailuak ez darabil dei hotsaren tonu edo horma-paper egokia

BlackBerry® gailuaren pasahitzaren bidez gailuaren memorian edo memoria txartelean enkriptatu duzun dei hotsaren tonu bat edo horma-papereko argazki bat erabiltzen ari bazara eta gailua berrabiarazi baduzu, desblokeatu gailua.

Lotutako gaiak

[Blokeatu teklatura, 259](#)

Egiten ditudan argazki batzuk lauso ateratzen dira

Argi gutxiko baldintzetan, kamerak esposizio falta orekatu dezake obturadorearen abiadura jaitsiz. Kamera mugitzen baduzu obturadorea itxi baino lehen, argazkia lauso irten daiteke. Kamerak obturadorearen abiadura baxua erabiltzen badu, harridura ikurra agertuko da pantailaren beheko aldean adierazle gisa.

Zure BlackBerry® gailuaren modeloaren arabera, baliteke kamera mugimendu txikien ondoriozko lausotasuna murriztu ahal izatea kameraren aukeretan Egonkortu irudiak aktibatuz.

Flasha ahuldu edo itzali egiten da

Kamerak flasha badu eta bateria ehuneko 20tik behera jaisten bada, flasha ahuldu egiten da bateria aurrezteko. Tenperatura baxuekin, bateria ehuneko 20tik behera jaisten bada, baliteke flasha itzaltzea.

Ezaugarri batzuk ez daude erabilgarri nire gailuan

Gailuaren modeloak edo haririk gabeko zerbitzu planak eragina izan dezakete BlackBerry® gailuko ezaugarri batzuen erabilgarritasunean.

Mezularitza zerbitzu-planaren arabera, baliteke zenbait eginbide edo aukera erabilgarri ez egotea Mezu elektronikoen lehentasunak pantailako mezuen aukeretan.

Posta kontuak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, baliteke erakundeak ezaugarri batzuk konfiguratu ez izana edo ezaugarri nahiz aukera batzuk zuretzat desgaitu izana. Administrazioaileak aukera bat ezarri badu zuretzat, blokeo-adierazle gorri bat agertuko da aukeraren eremuaren ondoan.

Zure gailuan erabilgarri diren ezaugarriei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure kalerik gabeko zerbitzu hornitzailearekin edo bisitatu www.blackberry.com/go/devices.

Lotutako gaiak

[Eginbideen erabilgarritasuna, 18](#)

Ezin ditut multimedia fitxategiak gorde

Agian zure BlackBerry® gailuak edo memoria txartelak ez du behar adina memoria erabilgarri multimedia fitxategiak gordetzeko.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Multimedia fitxategi bat zure gailuaren memorian gordetzen saiatzen ari bazara, ezabatu gailuko datu edo mezu zaharrak.
- Multimedia fitxategi bat memoria txartelean gordetzen saiatzen ari bazara, ezabatu multimedia fitxategi zaharrak
- Kameraren aukeretan, egiaztatu **Irudiaren tamaina** eremuan ez dagoela **Handia** hautatuta. Argazki handiek txikiagoek baino memoria gehiago erabiltzen dute.

Lotutako gaiak

[Mezuak ezabatu, 67](#)

[Fitategi bat eraman, berrizendatu edo ezabatu, 119](#)

Ezin ditut multimedia fitxategiak ireki

Saiatu ekintza hauetako bat:

- Zure BlackBerry® gailuan multimedia fitxategi bat irekitzen saiatzen ari bazara eta gailua ordenagailura konektatuta baduzu, deskonektatu gailua ordenagailutik.
- Ordenagailuan multimedia fitxategi bat irekitzen saiatzen ari bazara zure gailua USB kontrolatzaile gisa erabiliz, egiaztatu multimedia transferitzeko aukerak itxi dituzula BlackBerry® Desktop Software programan.
- Zure BlackBerry gailuak sortutako enkriptatze gako batekin enkriptatu badituzu memoria txarteleko multimedia fitxategiak eta ordenagailua edo fitxategia enkriptatzeko erabili zenuen BlackBerry gailua ez den beste gailu batean enkriptatutako multimedia fitxategi bat irekitzen saiatzen ari bazara, sartu memoria txartela fitxategia enkriptatzeko erabili zenuen BlackBerry gailuan. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Segurtasuna > Enkriptatzea. Memoria txartela** atalean, hautatu **Modua** eremuan **Gailuaren pasahitza**.

Lotutako gaiak

[Enkriptatzeari buruz, 139](#)

Nire gailuak ez du nire memoria txartela hautematen

Probatu ekintza hauetako bat:

- Ziurtatu memoria txartela behar bezala sartu duzula zure BlackBerry® gailuan. Gailuan memoria-txartela sartzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi gailuarekin batera banatutako inprimatutako dokumentazioa.
- Memoria txartelaren aukeretan, memoria txartela formateatzeko mezu bat agertzen bada, deskonektatu gailua ordenagailutik. Formateatu memoria txartela
KONTUZ: Memoria txartela formateatzen baduzu, bertako fitxategi guztiak ezabatuko dira.

Lotutako gaiak

[Zure memoria txartelean edo zure gailuan gordetako fitxategiak konpondu, 138](#)

Ezin ditut podcastak aurkitu

Podcasten edukia esplizitu gisa markatuta badago, ez da edukia ez da Podcast aplikazioan agertuko **Erakutsi eduki esplizitua** aukera aktibatuta ez baduzu.

Dei hotsen tonuak, soinuak eta alertak

Dei hotsen tonuei, soinuei eta alertei buruz

Soinu eta alerta profilak aplikazioan hautatutako profilak definintzen du BlackBerry® gailuak nola abisatzen zaituen telefono-deiak, mezuak, gogorarazleak eta arakatzailako edukiak jasotzean.


Gailuak Normala profilaz gain, aurrekargatutako bost profil ditu: Ozena, Ertaina, Bibratu soilik, Isilik eta Telefono deiak soilik. Aurrekargatutako edozein profiletako tonuak zure gailuko memorian edo memoria txartel batean gordetako audio fitxategietara alda ditzakezu; edo profil gehigarriak ere sor ditzakezu. Ezin da Desaktibatu alerta guztiak profila aldatu.

Besterik adierazi ezean, aurrekargatutako profilen ezarpen batzuk Normala profileko ezarpenetan oinarritzen dira. Adibidez, Normala profileko dei tonua aldatzen duzunean, Ozena profila, Ertaina profila eta Telefono deiak soilik profiletako dei tonuak automatikoki eguneratzen dira. Normala profileko ezarpen bat aldatzean aurrekargatutako profil bati dagokion ezarpena automatikoki eguneratzerik nahi ez baduzu, aurrekargatutako profil horren ezarpenak eskuz alda ditzakezu.

Kontaktuen alertak sor ditzakezu. Horrela, kontaktu jakin batek deitzen edo mezua bidaltzen dizunean alerta hori jasoko duzu. Kontaktuen alertak beti aktibatuta daude eta ez dira desaktibatzen, Desaktibatu alerta guztiak profila hautatu ezean. Adibidez, nahiz eta Isilik profila edo Bibratu soilik profila hautatu, kontaktuen alerta entzungarriek entzungarri izaten jarraitzen dute Desaktibatu alerta guztiak profila hautatu arte.

Dei-tonuak, jakinarazleak edo gogorarazleak aldatu

Tonua aldatzeaz gainera, deia abian dela bolumenaren, LEDaren, bibrazioaren eta jakinarazpenaren tonuen aukerak alda ditzakezu.


1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak > Hautatutako profilarentzako soinuak**.
 - Dei-tonua aldatzeko, sakatu **Telefonoa**.
 - Jakinarazpenak edo gogorarazleak aldatzeko, sakatu atala zabaltzeko. Sakatu aukera bat.
3. **Dei-tonua, Jakinarazpen-tonua** edo **Gogorarazle-tonua** eremuan, egin hauei sakatu bat:
 - Sakatu tonu bat.
 - BlackBerry® gailuan edo memoria-txartelean dagoen abesti bat erabiltzeko, sakatu **Musika guztia**. Bilatu eta sakatu abesti bat.
 - Grabatu duzun ahots-ohar bat erabiltzeko, sakatu **Ahots-ohar guztiak**. Aurkitu eta sakatu ahots-ohar bat.
 - Aurrez kargatutako alerta bat erabiltzeko, sakatu **Alerta guztiak**. Bilatu eta sakatu alerta bat.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Lotutako gaiak

[Ezin dut aldatu nire gailuak jotzen duen tonu kopurua, 59](#)

Profil pertsonalizatu bat gehitu


Profil gehigarriak sor ditzakezu.


1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak > Profilen kudeaketa > Gehitu profil pertsonalizatua**.
3. **Izena** eremuan, idatzi profilaren izena.
4. Sakatu aldatu nahi duzun elementua.
5. Aldatu dei-tonuaren, jakinarazlearen edo jakinarazlearen informazioa.
6. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Profil pertsonalizatua ezabatzeko, nabarmendu profila. Sakatu  tekla > **Ezabatu**.

Kontaktu-alerta gehitu


Kontaktu eta kontaktu talde jakinek deitzean edo mezuak bidaltzean jasoko dituzun dei hotsen tonuak eta alertak pertsonalizatzea onartzen duten kontaktu alertak sor ditzakezu. Kontaktuaren dei edo mezu bat jasotzen duzunean, BlackBerry® gailuak esleitutako dei hotsen tonua edo alerta erabiltzen du, soinu profilean Isilik edo Bibrazioa soilik hautatu baduzu ere. Esleitutako dei hotsen tonua edo alerta jakinaraztea nahi ez baduzu, Alerta guztiak desaktibatuta profila hauta dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak > Kontaktuentzako soinuak > Gehitu kontaktuen alerta**.
3. **Izena** eremuan, idatzi kontaktuen alertaren izena.
4. **Kontaktuak** eremuan, idatzi kontaktuen izena.
5. Sakatu kontaktu bat.
6. Aldatu deientzako eta mezuentzako dei hotsen tonua eta alerta.
7. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Kontaktuen alerta bat kentzeko, nabarmendu ezabatu nahi duzun kontaktuen alerta bat. Sakatu  tekla > **Ezabatu**.

Mututu zure gailua

1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Burutu ekintza hauetako bat:
 - LED keinukarien alertak soilik jasotzeko, sakatu **Isilik**.
 - Bibrazio alertak soilik jasotzeko, sakatu **Bibrazioa soilik**.
 - Alerta guztiak desaktibatuzko, baita kontaktu alertak ere, sakatu **Alerta guztiak desaktibatuta**.

Dei hotsaren tonu, gogorazle edo alerta batek jotzen duenean, erabilgarri badago, sakatu  tekla BlackBerry® gailuaren goialdean.

Lotutako gaiak

[Mututu alarma, 186](#)

LED keinukaria

BlackBerry® gailuaren goiko aldeko LED argiak dirdira egin dezake hainbat koloretan egoera desberdinak adierazteko.

Berdea

Hari gabeko estalduran zaude. Jakinarazpen horiek aktibatu edo desaktiba ditzakezu Aukerak > Bistaratu > Pantaila bistaratzea.

Urdina

Zure gailua Bluetooth® gaitasuneko gailu batera konektatuta dago. Jakinarazpen horiek aktibatu edo desaktiba ditzakezu Aukerak > Sareak eta Konexioak > Bluetooth konexioak aukeran.



Gorria

Mezu berria jaso duzu eta hautatu duzun profila LED argia erabiliz jakinarazteko ezarrita dago. Gailuan memoria-txartel bat badarabilzu, memoria-txarteleko datuetan sartzen ari da gailua.

Anbar

Gailuak bateria gutxi du edo gailua desaktibatuta dago eta kargatzen ari da. Ezin duzu bateria gutxi dagoela adierazten duen jakinarazlea desaktibatu. Gailua pizten duzunean kargatze-jakinarazpena desaktibatuko da.

Alarmaren jakinarazpenen aukerak aldatu

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Erlojua** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Alarma** atalean, aldatu **Alarmaren tonua** eremua, **Bolumena** eremua, **Errepikapen maiztasuna** eremua eta **Bibrazioa** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Gertaeren soinuak aktibatu

Gertaeren soinuek abisatzen dizute BlackBerry® gailua pizten edo itzaltzen duzunean, bateria beteta edo gutxi dagoenean eta USB kablea edo osagai bat gailuan konektatzen edo deskonektatzen duzunean.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Erabilerraztasuna**.

3. Hautatu **Gertaeren soinuak** kontrol laukia.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Arazoak: dei hotsen tonak, soinuak eta alertak

Nire gailuak espero baino gehiagotan jotzen du tonua edo bibratzen du

Deien kasuan, BlackBerry® gailuak bibratzen duen aldi kopurua ez du soinu profilean zehaztutako bibrazio kopuruak baldintzatzen, eta tonu kopurua ezin da zehaztu ahots postontzira harpidetzen ez bazara. Telefonoak tonua jotzen edo bibratzen jarraituko du deitzaileak edo hari gabeko sareak konexioa amaitzen duen arte.

Nire gailuak ez du bibratzen dei edo mezu bat jasotzen dudanean

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa. Egiatzatu zure profilean ez duzula **Alerta guztiak desaktibatuta** edo **Isilik** hautatu.
- Kontaktuen alerta bat sortu baduzu, sakatu hasierako pantailako **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak > Kontaktuentzako soinuak**. Sakatu kontaktuen alerta bat. Sakatu **Telefonoa** edo **Mezuak**. Egiatzatu **Bolumena** eremuan ez dagoela **Isilik** hautatuta, eta **Bibrazioa** eremuan ez dagoela **Desaktibatuta** hautatuta.


Arakatzaillea


Arakatzaillearen oinarrizko ezagutzak

Web orriak arakatu

Web orria bilatu edo Interneten bilatu

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, arakatzaille ugari ager daitezke zure BlackBerry® gailuan. Arakatzaille bakoitza erabiltzeak dituen gastuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
2. Orriaren goialdeko eremuan, idatzi web orria edo bilatu terminoak.
3. Sakatu teklatuko  tekla.

Web orria kargatzeari uzteko, sakatu  tekla > **Gelditu**.

Lotutako gaiak

[Ez dago arakatzailerik erabilgarri nire gailuan, 163](#)

Fitxekin arakatzeari buruz

Fitxekin arakatzuz, hainbat web orri ireki ditzakezu aldi berean BlackBerry® gailuan. Azkar alda zaitezke irekita dauden fitxa batetik bestera, fitxa bat itxi gabe beste bat ireki dezakezu edo arakatzaille osoa itxi gabe uneko fitxa itxi dezakezu. Mezuan dagoen esteka bat, egutegiko sarrera bat edo ohar bat irekitzen baduzu, esteka automatikoki fitxa berri batean irekitzen da.

Zenbat eta fitxa gehiago dituzun irekita, orduan eta memoria gehiago erabiliko du gailuak.






Lotutako gaiak

[Fitxak ireki, itxi edo batetik bestera aldatu, 12](#)

[Ezin dut fitxa berri bat ireki, 163](#)

Fitxak ireki, itxi edo batetik bestera aldatu


Egin hauetako bat:

- Fitxa berri bat irekitzeko, sakatu arakatzailleko  tekla > **Fitxak**. Sakatu **Fitxa berria** ikonoa.
- Web orri batentzako fitxa berri bat irekitzeko, nabarmendu esteka. Sakatu  tekla > **Ireki esteka fitxa berrian**.
- Fitxa batetik bestera aldatzeko, sakatu arakatzailleko  tekla > **Fitxak**. Sakatu fitxa bat.
- Fitxa itxeko, sakatu arakatzailleko  tekla > **Fitxak**. Nabarmendu fitxa bat. Sakatu  ikonoa.

Web orri bat handiagotu edo txikiagotu

Web orrian, sakatu  tekla > **Zooma**.

- Handiagotzeko, irristatu hatza gora nabigazio-teklan.
- Txikiagotzeko, irristatu hatza behera nabigazio-teklan.

Zoom modua desaktibatzeko, sakatu  tekla.

Egin web orri bat atzera edo aurrera


1. Web orri batean, sakatu **Menu** tekla.
2. Sakatu **Atzera** edo **Aurrera**.

Freskatu web orria

1. Web orri batean, sakatu **Menu** tekla.
2. Sakatu **Freskatu**.


Testua mezu batean, fitxategi batean edo web orri batean bilatu

Aurkezpen batean testua bilatzeko, aurkezpena Ikusi testua moduan edo Ikusi testua eta diaporama moduan ikusi behar duzu.

1. Mezu, fitxategi, eranskin edo web orrialde batean, sakatu  tekla > **Bilatu** edo **Bilatu orrialdean**.
2. Idatzi testua.
3. Sakatu **Sartu** tekla.

Hurrengo bat-etortzea bilatzeko, sakatu  tekla > **Bilatu hurrengoa**.

Duela gutxi ikusi dituzun web orrien zerrenda ikusi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaila** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Historia**.


Orri nagusira itzuli

1. Web orri batean, sakatu **Menu** tekla.
2. Sakatu **Hasierako orria**.

Arakatzaila itxi


1. Web orri batean, sakatu **Menu** tekla.
2. Sakatu **Itxi**.

Hasierako pantailan web orri batentzako lasterbide-ikonoa sortu

Mapa batean, sakatu  tekla > Gehitu hasierako pantailan.




Helbideak ikusi, kopiatu eta desbideratu

Web orri baten helbidea ikusi

Web orrian, sakatu  tekla > Orrialdearen propietateak.


Web orri, esteka edo argazki baten helbidea kopiatu

Egin hauetako bat:

- Web orri baten helbidea kopiatzeko, sakatu  tekla > **Kopiatu orrialdearen helbidea.**
- Esteka baten helbidea kopiatzeko, nabarmendu edo pausatu esteka batean. Sakatu  tekla > **Kopiatu esteka.**
- Irudi baten helbidea kopiatzeko, nabarmendu edo pausatu irudi batean. Sakatu  tekla > **Kopiatu esteka.**


Helbidea itsasteko, sakatu  tekla > **Itsatsi.**

Web orrialde baten helbidea bidali

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzailera** ikonoa.
 - Laster-marken zerrendan edo arakatzailerean historian dagoen web orri baten web helbidea bidaltzeko, nabarmendu web orri bat.
 - Beste web helbide bat bidaltzeko, joan web orrira.
2. Sakatu  tekla > **Bidali esteka** edo **Bidali orrialdearen helbidea.**
3. Sakatu mezu mota bat.

Mezua bidali ondoren arakatzailera itzultzeko, sakatu  tekla.

Web orrietako estekak edo irudiak bidali

1. Web orrialde batean, nabarmendu argazkia edo esteka edo bertan etenaldia egin.
2. Sakatu  tekla > **Bidali esteka** edo **Bidali irudiaren esteka.**
3. Sakatu mezu mota bat.

Mezua bidali ondoren arakatzailera itzultzeko, sakatu  tekla.

Argazkiak ikusi eta multimedia fitxategiak erreproduzitu

Web orrietako multimedia fitxategiak erreproduzitu


1. Web orrian, egin klik multimedia fitxategian.
2. Sakatu **Ireki**.

Lotutako gaiak

[Onartutako audio- eta bideo-fitxategiak, 11](#)

[Ezin dut web orri bateko abesti edo bideo bat erreproduzitu, 163](#)

Argazkia osorik ikusi web orri batean

1. Web orrian, argazkia nabarmendu edo etenaldia egin.
2. Sakatu  tekla > **Irudi osoa**.

Argazkiak handiagotzeko edo txikiagotzeko, sakatu  tekla > **Txikiagotu** edo **Txikiagotu**.


Argazkia jatorrizko tamainara itzultzeko, sakatu  tekla > **Zoom 1:1**.

Arakatzailaren laster markak

Web orrien laster markei buruz

Maiz sartzen zaren web orrien laster markak gehi ditzakezu. Laster marka bat gehitzen duzunean, erregulariki eguneratzerik dagoen egiaztatzeko konfiguratu dezakezu arakatzaila. Ikusi dituzun azken aldiak geroztik eguneratu diren web orrien laster markak letra etzanez agertzen dira.



Gehitu web horri baterako laster marka

1. Mapa batean, sakatu  tekla > **Gehitu laster marketan**.
2. **Izena** eremuan, idatzi laster-markaren izena.
3. **Karpeta** eremuan, sakatu laster-marka agertzea nahi duzun karpeta.
4. Sakatu **Gehitu**.




Web orria lineaz kanpo bisitatzen baduzu, web orria linean azken aldiz ikusi zenuenean zuen edukia bistaratuko du arakatzailak.

Web orrien laster-markak aldatu edo ezabatu



1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaila** ikonoa.

2. Sakatu  tekla > **Laster markak**.
3. Nabarmendu laster-markaren bat.
4. Sakatu  tekla.
 - Laster-marka bat aldatzeko, sakatu **Editatu laster-marka**. Aldatu laster-marka. Sakatu **Onartu**.
 - Laster-marka bat ezabatzeko, sakatu **Ezabatu laster-marka**.



Web orrien laster markak bidali

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
 2. Sakatu  tekla > **Laster markak**.
 3. Nabarmendu laster-markaren bat.
 4. Sakatu  tekla > **Bidali esteka**.
 5. Sakatu mezu mota bat.
- Mezua bidali ondoren arakatzailera itzultzeko, sakatu  tekla.


Web orri baten laster marka artxibatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Laster markak**.
3. Nabarmendu laster-markaren bat.
4. Sakatu  tekla > **Mugitu**.
5. Sakatu kokapen berria.

Web orrien laster-marken karpeta gehitu, berrizendatu edo ezabatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Laster markak**.
3. Nabarmendu laster marken karpeta bat.
4. Sakatu  tekla.
 - Laster-marken karpeta gehitzeko, sakatu **Gehitu azpikarpetak**.
 - Laster-marken karpeta berrizendatzeko, sakatu **Berrizendatu karpeta**. Idatzi karpetaren izen berri bat. Sakatu **Sartu** tekla.
 - Laster-marken karpeta ezabatzeko, sakatu **Ezabatu karpeta**.

RSS iturriak

RSS iturriak zure BlackBerry® gailuan erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Iturri sozialak** ikonoa. Sakatu  tekla > **Laguntza**.

RSS iturriei buruz



Zure BlackBerry® gailuari RSS iturriak gehi diezazkiokezu, zure blog eta webgune gogokoenen eguneraketak jaso ahal izateko. RSS iturriak zuzenean webgune batetik edo Iturri sozialak aplikazioa erabiliz gehi ditzakezu. Iturri sozialak aplikazioarekin, sare sozialetan eguneratuta egon zaitezke eta zure RSS iturriak kokapen bakar batean ikus ditzakezu.

RSS iturria arakatzaitik gehitu

1. Arakatzailera, RSS iturridun webgune batean zaudenean, sakatu **Menua** tekla.
2. Sakatu **Orrialdearen ekintzak**.
3. Sakatu **Gehitu iturrietan**.
4. Hautatu gehitu nahi duzun iturri bakoitzaren alboko kontrol-laukia.
5. Sakatu **Harpidetu**.
6. Sakatu **Ados**.



Arakatzailera aukerak

Hasierako orrialdea edo etxeko orrialdea aldatu



1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzailera** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Orokorra** atalean, egin hauetakoren bat:
 - Etxeko orrialdea aldatzeko, **Etxeko orrialdea** eremuan, idatzi web helbide bat.
 - Arakatzailera lehen aldiz irekitzen duzunean, etxeko orrialdea hasierako orrialde gisa erabiltzeko, hautatu **Hasierako orrialdea** eremuan **Etxeko orrialdea**.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

JavaScript onartzea desaktibatu


Eginbide interaktiboez hornitzeko erabiltzen da JavaScript zenbait web orritan, hala nola menuetan eta soinetan. Arakatzailera JavaScript eginbideez hornitzea nahi ez baduzu, JavaScript onartzea desaktiba dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzailera** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Web edukia** atalean, kendu marka **Gaitu JavaScript** kontrol-laukiari.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.



Web orrietan irudiak kargatzeari edo multimedia-fitxategi kapsulatuak erreproduzitzeari utzi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Web edukia** atalean, egin hauetakoren bat:
 - Web orrietako irudiak kargatzeari gelditzeko, kendu marka **Kargatu irudiak** kontrol-laukiari.
 - Web orrietan multimedia-fitxategi kapsulatuak erreproduzitzeari uzteko, kendu marka **Gaitu multimedia-fitxategi kapsulatuak** kontrol-laukiari.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Web orriaetan popup-ak blokeatzeari utzi



1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Web edukia** atalean, kendu marka **Blokeatu popup-ak** kontrol-laukiari.

Web orriko testuaren letraren tamaina aldatu


1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Web edukia** atalean, aldatu **Letraren tamaina** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.



Web orri guztietarako karaktere kodetzea ezarri

Besterik adierazi ezean, webgune bakoitzerako karaktere kodetze optimoa erabiltzen du BlackBerry® gailuak.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Web edukia** atalean, aldatu **Testu-kodeketa lehenetsia** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Arakatzaillea itxi edo Internetetik euskarria transmititu aurretik abisua jaso

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaillea** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Orokorra** atalean, **Abisatu aurretik** azpian, burutu ekintza hauetako bat:
 - Hainbat fitxa irekita dituzunean arakatzaillea itxi nahi duzun galdetzeko, hautatu **Fitxak ixtea irtetean** kontrol laukia.


- Ihes tekla sakatu ostean arakatzaila itxi nahi duzun galdetzeko  tekla, hautatu **Arakatzaila ixtea ihes teklarekin** kontrol laukia.
 - Zure BlackBerry® gailuak Internetetik euskarria transmititzeko hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arakatzaila ataria erabili aurretik, hautatu **Multimedia streaminga sare eramailera aldatzen** kontrol laukia.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Lotutako gaiak



[Abesti edo bideo bat zuzenean erreproduzitzean, sareen artean aldatu nahi dudun galdetzen zait, 163](#)

Arakatzeko informazioa ezabatu

BlackBerry® gailuak informazioa gordetzen du arakatzailan, arakatzeko esperientzia hobetzeko. Gailura bultzatuko pasahitzaren informazioa, arakatzailaaren historia, cookieak, edukia eta arakatzailaaren cachea ezaba ditzakezu.



1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaila** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Pribatutasuna eta segurtasuna** atalean, **Garbitu arakatzeko datuak** aukeraren azpian, hautatu ezabatu nahi dituzun arakatzeko informazio moten alboko kontrol-laukiak.
4. Sakatu **Garbitu orain**.

Arakatzailan cookieak desaktibatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaila** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Pribatutasuna eta segurtasuna** atalean, kendu marka **Onartu cookieak** kontrol-laukiari.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Arakatzailan geokopapena aktibatu

Arakatzailan geokopapena aktibatzen duzunean, zenbait webgunek zure gutxi gorabeherako kokapena zehatz dezakete.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaila** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Pribatutasuna eta segurtasuna** atalean, hautatu **Gaitu geokopapena** kontrol-laukia.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Zure kokapena eskatzen duen webgune bat bisitatzen duzunean, elkarrizketa-koadro bat agertuko da. **Ez galdetu berriro webgune honetan** kontrol-laukia hautatzen baduzu, webgunea eta harentzako gorde dituzun baimenak arakatzailaaren aukeretako **Geokopapen-baimenak** atalean gordeko dira.

Arakatzailaren segurtasuna


TLSri buruz

BlackBerry® arakatzailaren konfigurazioa zure gailuak BlackBerry® Enterprise Server zehar internetera bidali edo internetetik jasotzen dituen datuak TLS edo SSL bidez enkriptatzeko diseinatu da. Zure gailuaren eta BlackBerry Enterprise Server zerbitzariaren arteko komunikazioa DES hirukoitza erabiliz enkriptatzen da. BlackBerry Enterprise Server zerbitzariaren eta eduki zerbitzariaren arteko komunikazioa SSL edo TLS erabiliz enkriptatzen da. Segurtasuna handitze aldera, TLS konfiguratu dezakezu zure gailuaren eta BlackBerry Enterprise Server zerbitzariaren arteko HTTP konexioetarako eta DES hirukoitza erabili dezakezu zure gailuaren eta BlackBerry Enterprise Server zerbitzariaren arteko beste komunikazio guztiak enkriptatzeko.

TLS aukerak



Aukera	Deskripzioa
Baimendu SSL 3.0	Zehaztu zure arakatzailak SSL konexioak onartzen dituen ala ez. Aukera hau hautatzen ez baduzu, zure arakatzailak TLS konexioak soilik baimenduko ditu.
Enkriptatze-indarra	Zehaztu zure arakatzailak 128-biteko enkriptatzea erabiliz enkriptatutako datuak bakarrik onartu behar dituen. 128 biteko enkriptatzearekin enkriptatutako datuak bakarrik onartzeko eta bidaltzeko, ezarri eremu hau Indartsua bakarrik gisa. 128-biteko enkriptatzea edo 56-biteko enkriptatzea erabiliz enkriptatutako datuak onartu eta bidaltzeko, aldatu eremu hori Baimendu ahula jarri dezan.
Algoritmoaren indarra	Zehaztu arakatzailak algoritmo laburpen ahula duten datuak edo algoritmo laburpen indartsua duten datuak onartuko dituen. Zenbat eta indartsuagoa izan algoritmoen laburpena, orduan eta seguruagoa izango da arakatzailaren esperientzia. Algoritmo-laburpen ahulak dituen datuak onartzeko, hautatu eremu horretan Baimendu ahula . Algoritmo-laburpen indartsuak dituen datuak soilik onartzeko, hautatu eremu horretan Indartsuak soilik . Algoritmo-laburpen ahula duen datuak onartzeko galdetzeko, hautatu eremu horretan Galdetu . Administrazioaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke aukera hori aldatzeko gai ez izatea.

Arakatzailaren segurtasuna kudeatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna > Segurtasun ezarpen aurreratuak > TLS**.
3. Ezarri segurtasun-aukerak.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.




Edukien zerbitzari fidagarriak gehitu

Zure posta kontuak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabiltzen badu, eduki-zerbitzariak gehi ditzakezu eduki-zerbitzari fidagarrien zerrendara. Horrela, autentifikazio prozesua bizkortuko da, eduki-zerbitzari batekin autentifikatzen ari zarenean.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna > Segurtasun ezarpen aurreratuak > TLS**.
3. Nabarmendu **Fidatu ostalarietaz** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gehitu ostalaria**.
5. Idatzi edukien zerbitzariaren web helbideak.
6. Sakatu **Ados**.
7. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Gehitu edo aldatu ziurtagiri batekin lotutako webgunea

Webgune batzuk atzitzeko, baliteke autentifikazio-ziurtagiri bat eman behar izatea. Webgune baterako ziurtagiri bat eman eta gero, webgunea eta harekin lotutako ziurtagiria automatikoki gehituko dira Ostalariaren/Ziurtagiriaren mapak zerrendan zure TLS aukeretan. Ziurtagiri batekin lotutako webgune bat eskuz gehi edo alda dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna > Segurtasun ezarpen aurreratuak > TLS**.
 - Webgune bat ziurtagiri batekin eskuz lotzeko, nabarmendu **Ostalariaren/Ziurtagiriaren mapak** eremua. Sakatu  tekla > **Gehitu ostalaria**. **Ostalariaren izena** eremuan, idatzi webgunearen izena. **Ziurtagiria** eremuan, hautatu webgunearekin lotuta dagoen ziurtagiria. Sakatu **Ados**.
 - Ziurtagiri batekin lotutako webgune bat aldatzeko, **Ostalariaren/Ziurtagiriaren mapak** zerrendan, nabarmendu elementu bat. Sakatu  tekla > **Editatu**. Aldatu ziurtagiria. Sakatu **Ados**.
3. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Arakatzailerearen push eguneratzeak

Browser push-i buruz


Informazioa erabilgarri egon bezain laster web aplikazio batetik BlackBerry® gailura bidaltzeko diseinatuta daude arakatzailerearen push eguneratzeak. Adibidez, eguraldi iragarpenen eguneratzeak, akzioen kotizazioak edo azken orduko albisteak jaso ditzakezu. Gailuak eguneratze bat jasotzean, informazio berria erabilgarri dagoela adierazteko, arakatzailerearen push eguneratzearen mezu berria ager daiteke mezuen aplikazioan edo ikono bat alda daiteke hasierako pantailan. Baliteke web aplikazioak informazio eguneratua arakatzailerearen cache-an sartzea ere zuri jakinarazi gabe. Informazioa arakatzailerearen cache-an sartzen bada, gailua hari gabeko sarera konektatu gabe dagoenean ere informazioa erabilgarri egongo da gailuan. Arakatzailerearen pusha automatikoki erabiltzen duten web aplikazioek eguneratzeak bidaltzen dituzte gailura, arakatzailerearen pusha desaktibatu ezean.

Zure gailuak arakatzailerearen push mezu mota desberdinak onartzen ditu. Zerbitzuak kargatzeko mezuek eta zerbitzuen abisu mezuek informazio eguneratua dute. Zure arakatzailerearen cache-an agertzen diren mezuek ere arakatzailerearen push mezuetan agertzen dira.

Arakatzailerearen push aukerak



Aukera	Deskripzioa
MDS prozesua	Zehaztu BlackBerry® gailuak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzariko edo BlackBerry® Internet Service zerbitzuko arakatzailerearen push mezuak onartzen dituen.
MDS ostalariak	Zehaztu zure gailuak BlackBerry Enterprise Server edo BlackBerry Internet Services guztien push mezuak onartzen dituen.
SMSC prozesua	Zehaztu gailuak SMS oinarriko push mezuak onartzen dituen.
SMSC ostalariak	Zehaztu zure gailuak zer SMSC ostalariren arakatzailerearen push mezuak onartzen dituen . SMSC ostalari jakin baten arakatzailerearen push mezuak onartzeko, idatzi SMSC ostalariaren telefono zenbakia.
IP prozesua	Zehaztu zure gailuak web aplikazioek WAP atebidearen bidez bidalitako arakatzailerearen push mezuak onartzen dituen.
IP ostalariak	Zehaztu zure gailuak zer WAP atebideren arakatzailerearen push mezuak onartzen dituen. IP ostalari jakin baten arakatzailerearen push mezuak onartzeko, idatzi WAP atebidearen IP helbidea.

Arakatzaila pusha ezgaitu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua > Sistemaren ezarpen aurreratuak > Arakatzailaren pusha**.
3. Kendu marka **Gaitu pusha** kontrol-laukiari.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Arakatzailaren lasterbideak

Gaitu arakatzailaren lasterbideak

1. Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzaila** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
3. **Orokorra** sekzioan, hautatu **Gaitu teklatuaren lasterbideak** kontrol-laukia.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Arakatzailaren lasterbideak

Arakatzailaren lasterbideak erabiltzeko, baliteke lasterbideak aktibatu behar izatea arakatzailaren aukeretan. Idazteko erabiltzen ari zaren sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke lasterbide batzuk erabilgarri ez egotea.

Web helbidearen eremuan puntu (.) bat idatzi	Sakatu Zuriunea tekla.
Web helbidearen eremuan barra (/) bat idatzi	Sakatu Maius tekla eta Zuriunea tekla.
Ezeztatu web orri baten karga	Sakatu lhes tekla.
Arakatzaila itxi	Eduki sakatuta lhes tekla.

Web orri batean

Azkar aldatu fitxen artean	Sakatu W
Handiagotu web orria	Sakatu I
Txikiagotu web orria	Sakatu O
Joan hasierako orrialdera	Sakatu G
Orri nagusira itzuli	Sakatu H
Ireki marken zerrenda	Sakatu K

Gehitu marka bat	Sakatu A
Duela gutxi ikusi dituzun web orrien zerrenda ikusi	Sakatu Y
Freskatu web orria	Sakatu R
Bilatu testua web orri batean	Sakatu F . Hurrengo bat-etortzea bilatzeko, sakatu V .
Ireki arakatzaillearen aukerak	Sakatu S

Mugitu web orrian

Igo pantaila	Sakatu Maius tekla eta Zuriunea tekla.
Jaitsi pantaila	Sakatu Zuriunea tekla.
Joan we orriaren hasierara	Sakatu T
Joan we orriaren amaierara	Sakatu B

Arazoak: arakatzaillea

Ez dago arakatzailerik erabilgarri nire gailuan


Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea. Ziurtatu BlackBerry® gailua hari gabeko sarera konektatuta dagoela.

Ezin dut web orri bateko abesti edo bideo bat erreproduzitu

Baliteke BlackBerry® gailuak abestiaren edo bideoaren tamaina edo fitxategi formatua ez onartzea.

Abesti edo bideo bat zuzenean erreproduzitzean, sareen artean aldatu nahi dudana galdetzen zait

Sareen artean aldatu nahi duzun galdetzen bazaizu, ezin duzu abesti edo bideorik zuzeneko erreprodukzioaren bidez erreproduzitu duzun Internet konexioarekin. Sareen artean aldatzen baduzu, baliteke kostu gehigarriak aplikatzea. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo administratzailearekin.

Abisu hau berriz ez jasotzeko, arakatzaillean, sakatu  tekla > **Aukerak**. **Orokorra** atalean, **Abisatu aurretik** azpian, garbitu **Multimedia streaminga sare eramailerara aldatzen** kontrol laukia.

Ezin dut fitxa berri bat ireki

Baliteke memoria erabilgarri nahikorik izan BlackBerry® gailuan. Saiatu ekintzak hauek burutzen:

- Itxi behar ez duzun fitxa bat.
- Itxi irekita behar ez dituzun beste aplikazio batzuk.

Lotutako gaiak

[Aplikazio bat itxi atzean exekuta ez dadin, 217](#)


[Fitxak ireki, itxi edo batetik bestera aldatu, 12](#)

Egutegia


Egutegiaren oinarrizko ezagutzak

Aldatu egutegien ikuspegien artean



Zure egutegiko hitzorduak eta bilerak lau era desberdinetan ikus ditzakezu. Eguna, Astea eta Hilabetea ikuspegietan, aukeratutako epean dituzun hitzordu eta bilera guztiak bistaratzen dira. Agenda ikuspegian, zure hitzordu eta bilera guztiak biltzen dituen zerrenda bistaratzen da. Agenda ikuspegian, hitzorduen artean duzun denbora librearen agertzen da.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Egutegia** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Ikusi**.
3. Klikatu ikuspegi bat.

Egutegiko data jakin batera joan

1. Hasierako pantailan, sakatu **Egutegia** ikonoa.
2. Sakatu  tekla.
 - Data zehatz batera jotzeko, klikatu **Joan datara**.
 - Uneko datara mugitzeko, sakatu **Joan gaurkora**.

Hitzorduak antolatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Egutegia** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Hitzordu berria**.
3. Idatzi hitzorduaren informazioa.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Lotutako gaiak

[Gailua itzali, 245](#)

[Ezin dut egun bat baino gehiago hartzen duen hitzordurik antolatu, 175](#)

[Ezin ditut eremu batzuk ezarri hitzorduak antolatzen ari naizenean, 175](#)

Azkar antolatu hitzorduak Egunen ikuspegian

Ataza hori burutzeko, egutegiaren aukera orokorretan, Sarrera azkarra kontrol laukia hautatu behar da.




1. Hasierako pantailan, sakatu **Egutegia** ikonoa.
2. Egunen ikuspegian, hasiera orduaren ondoan, idatzi hitzorduaren gaia.
3. Idatzi kokapen bat parentesi artean "()".

4. Amaiera-ordua aldatzeko, irristatu hatza gora eta behera nabigazio-barran.
5. Sakatu nabigazio tekla.

Zure BlackBerry® gailuan egutegi bat baino gehiago baduzu, hitzordua zure egutegi lehenetsian agertuko da.

Bilerak antolatu



Ataza hori egiteko, zure posta elektronikoko kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Internet Service edo BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat eduki behar du. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri kontaktuan zure kalerik gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Egutegia** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Hitzordu berria**.
3. Idatzi bileraren informazioa.
4. Sakatu  tekla > **Gonbidatu parte hartzailea**.
5. Sakatu kontaktu bat.
6. Zure bilerara beste kontaktu bat gehitzeko, errepikatu 4-5 pausoak.
7. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Lotutako gaiak


[Gailua itzali, 245](#)

Alarma bat ezarri

1. Hasierako pantailan, sakatu **Egutegia** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Alarma berria**.
3. Idatzi alarmaren informazioa.
4. Alarma errepika dadin nahi baduzun, aldatu **Errepikapena** eremua.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Aldatu egutegien artean




BlackBerry® gailua posta elektronikoko kontu bat baino gehiagorekin erlazionatuta badago, egutegi bat baino gehiago izan ditzakezu gailuan. Gailuan egutegi bat baino gehiago badituzu, egutegi guztietan antola eta kudea ditzakezu hitzorduak eta bilerak. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Egutegia** ikonoa.
2. Sakatu  tekla > **Hautatu egutegia**.
3. Klikatu egutegi bat.

Bilerak

Bilerak antolatu


Zure kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, baliteke ataza hau ezin burutzea. Egiatzatu zure administratzailearekin zein BlackBerry® Device Software eguneraketa onartu diren zure erakundean erabiltzeko.

Aldizka segurtasun-kopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Eguneratutako segurtasun-kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, gailuko datuak berreskura ditzakezu, gailua galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

1. Zure ordenagailuan, joan BlackBerry Device Software eguneraketa gunera.
2. Sakatu **Eguneraketak Bilatu**.
3. Konektatu zure BlackBerry gailua ordenagailuarekin.
4. Eguneraketa laburpen pantailan, markatu instalatu nahi duzun eguneraketaren ondoan dagoen kontrol laukia.
5. Egin hauetako bat:
 - Hautazko aukerak gehitu edo ezabatzeko, sakatu **Aukerak**. Markatu edo desmarkatu aplikazio bat edo gehiagoren ondoan dagoen kontrol laukia. Klikatu **Hurrengoa**.
 - Gailuaren datuen segurtasun kopia bat egiteko edo datu guztiak ezabatzeko, sakatu **Ezarpenak**. Markatu edo desmarkatu datu mota baten edo gehiagoren ondoan dagoen kontrol laukia. Sakatu **Ados**.
6. Klikatu **Hurrengoa**.
7. Pantailan agertzen diren jarraibideak bete software berriari buruzko jakinarazpen elektronikoetara harpidetzeko edo horiek ukatzeko.
8. Sakatu **Hurrengoa > Amaitu**.

Eguneratu BlackBerry Device Software ondorengoa erabiltzen BlackBerry Desktop Software

Aldizka segurtasun-kopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Eguneratutako segurtasun-kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, gailuko datuak berreskura ditzakezu, gailua galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

Konektatu BlackBerry® gailua ordenagailura eta ireki BlackBerry® Desktop Software. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software programako laguntza.

Arazoak: BlackBerry Device Software

Ezin dut eguneratu BlackBerry Device Software softwarea hari gabeko sarearen bidez

Hari gabeko zerbitzu hornitzaileak edo administratzaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke zure BlackBerry® Device Software softwarea hari gabeko sarearen bidez eguneratu ezin izatea.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu zure BlackBerry gailua hari gabeko sare batera konektatuta dagoela.
- Egiaztatu zure gailuak memorian leku nahikoa duela BlackBerry Device Software softwarea eguneratzeko.
- Egiaztatu ez zaudela hari gabeko zerbitzu hornitzailearen estalduratik kanpo ibiltaritzan zaudenean. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke zure BlackBerry Device Software softwarea eguneratu ezin izatea ibiltaritzan zaudenean. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin.
- Saiatu geroago zure BlackBerry Device Software softwarea eguneratzen hari gabeko sarearen bidez. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke zure BlackBerry Device Software softwarea ezin eguneratzea eguneko une batzuetan, sareko trafikoa handiagoa dagoenean.
- Saiatu hari gabeko zerbitzu hornitzailearen webgunea bisitatzen, beharbada handik zure BlackBerry Device Software eguneratu ahalko duzu eta.

Nire gailuak ez dauka behar adina memoria erabilgarri BlackBerry Device Softwarea eguneratzeko

Hurrengo ekintzak burutzen saiatu:

- Ezabatu erabiltzen ez dituzun multimedia fitxategiak, pantailako hizkuntzak, edo hirugarrenen aplikazioak.
- Transferitu BlackBerry® gailuan gorde dituzun multimedia fitxategiak memoria txartel batera.

Kudeatu konexioak

Kudeatu konexioak aukeraren oinarrizkoak

Gailua zein hari gabeko sareetara konektatzen den egiaztatu






Gailua nolako sareetara konektatzen den gailuan bertan egiaztatu dezakezu; bestela, www.blackberry.com/go/devices webgunea bisitatu dezakezu, zure gailuaren modeloaren eginbideen xehetasunak ikusteko. Zerrendatutako sareen motak ez ditu sare-konexioak islatzen; gailuaren modelo sare horietara konekta daitekeela baizik.





1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua > Gailuaren bertsioei buruz**. Zure gailua konekta daitekeen sare motak parentesi artean azaltzen dira zure gailuaren modeloaren ondoan.

BlackBerry® gailua konektatzen den hari gabeko sareei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi *Segurtasun eta produktuaren informazioa* gailuaren liburuxka.

Hari gabeko estalduraren adierazkleak

Hasierako pantailan, goialdean eskuinera agertzen diren adierazleek erakusten dute BlackBerry® gailua erabiltzen ari zaren eremuko hari gabeko estaldura maila. Hari gabeko estaldura eremu buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

Adierazlea	Deskripzioa
	Hari gabeko seinalearen indarrari buruzko informazioa ematen du. Hiru barra edo gehiagok seinale indartsua erakusten dute. Seinale ahulak bateriaren kontsumoa areagotu dezake, gailua seinale ahulera konektatzen saiatzen baita.
1XEV, 1X, 3G  , EDGE, GPRS, NXTL, MIKE edo NTKW	Sare mugikor batera konektatuta zaude eta hainbat eginbidetara sar zaitezke, hala nola mezularitza elektronikora eta Internet arakatzailera. Adierazletako bat ikusten baduzu, hari gabeko estaldura murriztuko eremu batean egon zaitezke eta baliteke, bertan, hainbat eginbide erabilgarri ez egotea (baliteke ezin telefono- dei bat egin ezin izatea edo SMS testu mezu bat bidaltzea).
	Larrialdi-zenbakietara soilik dei dezakezu.
	Ez zaude hari gabeko estaldura eremu batean.
	Sare mugikorrerako konexioa desaktibatuta dago.

Adierazlea	Deskripzioa
	Wi-Fi® sare batean konektatuta zaude eta zenbait BlackBerry zerbitzutara sar zaitezke, adibidez, mezularitza elektronikora eta Wi-Fi konexio bidez Internet bidez arakatzea.
	Wi-Fi konexioa aktibatuta dago, baina ez zaude Wi-Fi sare batera konektatuta; edo Wi-Fi sare batera konektatuta zaude, baina ezin duzu hainbat BlackBerry zerbitzutara sartu, adibidez, mezularitza elektronikora edo Wi-Fi konexio bidez Internet bidez arakatzea.
	Zure Bluetooth-a konexioa aktibatuta dago eta Bluetooth-a gaitasuneko gailu batera konektatuta zaude.
	Zure Bluetooth-a konexioa aktibatuta dago, baina ez zaude Bluetooth-a gaitasuneko gailu batera konektatuta.

Lotutako gaiak

[Larrialdi-deiei eta Larrialdi atzeradei moduari buruz, 44](#)

Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu

Zenbait tokitan sare-konexioak desaktibatuta mantendu behar dituzu, adibidez, hegazkinetan edo ospitaletan. Informazio gehiagorako, ikus *Segurtasun eta produktuaren informazioa* liburuxka, zure BlackBerry® gailuarekin zetorrena.

Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.

- Sare-konexioa aktibatzeko, hautatu konexio motaren alboko kontrol-laukia.
- Sare-konexioa desaktibatzeko, hautatu konexio mota baten alboko kontrol-laukia.
- Lehenago aktibatutako sare-konexioak aktibatzeko, sakatu **Berrezarri konexioak**.

Lotutako gaiak


[Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 235](#)

[Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 229](#)

Datu zerbitzuak gaitu edo desgaitu edo ibiltaritze aukerak konfiguratu

Haririk gabeko zerbitzu planaren arabera, baliteke gai izatea datu-zerbitzuak (mezu elektronikoa, PIN mezuak, eranskindun testu-mezuak eta arakatazile-zerbitzua) BlackBerry® gailuan ezgaitzeko. Modu horretan, telefonoa eta oinarrizko testu-mezularitza soilik egongo da erabilgarri. Ibiltaritzean zaudenean gailuak datu zerbitzuak desgaitu ditzan konfiguratu dezakezu. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sare mugikorraren aukerak**.
3. Burutu ekintza hauetako bat:
 - Datu zerbitzuak aktibatzeko edo desaktibatzeko, aldatu **Datu zerbitzuak** eremua.
 - Ibiltaritzean zaudenean datu zerbitzuak aktibatzeko edo desaktibatzeko, aldatu **Ibiltaritzean** eremua.

- Ibiltaritzan zaudenean datu zerbitzuak aktibatzea edo desaktibatzea baimentzen duen gonbit bat jasotzeko, ezarri **Ibiltaritzan** eremua **Abisatu** gisa
4. Sakatu  tekla > **Itxi**.

Lotutako gaiak

[Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 229](#)

Sare-konexioen eta -zerbitzuen egoera egiaztatu

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Zerbitzuen egoera**.

Sare mugikorra

Ibiltaritzza

Ibiltaritzari eta nazioarteko ibiltaritzari buruz

Kasu gehienetan, zure BlackBerry® gailua automatikoki konektatzen da hari gabeko sare egokira zure zerbitzu hornitzailearen estaldura eremutik kanpora bidaiatzen duzunean. Zenbaitetan saio hasteko informazio eman behar izan dezakezu hari gabeko sare batera sartu ahal izateko. Ibiltaritzan zaudenean, hiruki formako ibiltaritzza adierazlea agertzen da hasierako pantailaren goialdean.

Zure gailuak SIM txartela behar badu, agian zure hari gabeko zerbitzu hornitzaileak SIM txartela konfiguratu beharko du ibiltaritzan erabili ahal izateko.

Zure gailua normalean CDMA sare batera konektatzen bada eta gailuak nazioarteko ibiltaritzza onartzen badu, agian nazioarteko ibiltaritzza onartzen duen SIM txartel bat lortu beharko duzu hari gabeko zerbitzu hornitzailearengandik. Zure telefono zenbakia ez da aldatzen atzerrira bidaiatzen duzunean.

Ibiltaritzari eta ibiltaritzako tarifei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri zure hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin harremanetan.

Hari gabeko sareak eskuz aldatu

Ataza hori egiteko, zure hari gabeko zerbitzu planak zerbitzu hori barruan hartu behar du eta zure BlackBerry® gailua GSM® edo UMTS® sare batera konektatuta egon behar da.

Zure gailua bidaiatzen duzunean hari gabeko sare egoki batera konektatzeko diseinatu da.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sare mugikorraren aukerak**.
3. Aldatu **Sarea hautatzeko modua** eremua **Eskuzkoa** jarri dezan.
4. Sakatu hari gabeko sare bat.

5. Sakatu **Hautatu sarea**.
6. Sakatu  tekla > **Itxi**.


Zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen hari gabeko sarera berriro konektatzeko, ezarri **Sarea hautatzeko modua** eremua **Automatikoa** gisa.

Lotutako gaiak

[Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 229](#)

Datu zerbitzuak gaitu edo desgaitu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu

Haririk gabeko zerbitzu planaren arabera, baliteke gai izatea datu-zerbitzuak (mezu elektronikoak, PIN mezuak, eranskindun testu-mezuak eta arakatzaille-zerbitzua) BlackBerry® gailuan ezgaitzeko. Modu horretan, telefonoa eta oinarrizko testu-mezularitza soilik egongo da erabilgarri. Ibiltaritzan zaudenean gailuak datu zerbitzuak desgaitu ditzan konfiguratu dezakezu. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sare mugikorraren aukerak**.
3. Burutu ekintza hauetako bat:
 - Datu zerbitzuak aktibatzeko edo desaktibatzeko, aldatu **Datu zerbitzuak** eremua.
 - Ibiltaritzan zaudenean datu zerbitzuak aktibatzeko edo desaktibatzeko, aldatu **Ibiltaritzan** eremua.
 - Ibiltaritzan zaudenean datu zerbitzuak aktibatzea edo desaktibatzea baimentzen duen gonbit bat jasotzeko, ezarri **Ibiltaritzan** eremua **Abisatu** gisa
4. Sakatu  tekla > **Itxi**.

Lotutako gaiak

[Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 229](#)

Hari gabeko sare hobetsien zerrenda

Kablerik gabeko sareen zerrenda hobetsiari buruz

Zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzaileak akordioak izan ditzake kablerik gabeko beste hornitzaileekin, bidaiatzen duzunean zerbitzua erabiltzeko aukera izan dezazun. Kablerik gabeko sare hobetsien zerrenda erabili dezakezu zure BlackBerry® gailuak kablerik gabeko beste sare horiek zein ordenatan erabiltzen dituen kontrolatzeko.




Zure gailua jablerik gabeko sareen zerrendako ordenaren arabera saiatzen da kablerik gabeko sareetara konektatzen. Bidaiatzen duzunean, zure gailuak zerrendan dauden sareen bila eskaneatzen du lehenik. Zerrendako sare bat ere erabilgarri ez dagoenean, zure gailua erabilgarri dagoen kablerik gabeko beste sare batera automatikoki konektatzeko diseinatu da.

Oharra: Normalean, prezioak igotzen dira ibiltaritzan zaudenean. Ibiltaritzako prezioei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzailearekin.

Hari gabeko sare hobetsien zerrendan hari gabeko sare bat gehitu

Ataza hori egiteko, zure BlackBerry® gailua GSM® edo UMTS® sare batera konektatuta egon behar da.




Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sare mugikorraren aukerak**.
3. Sakatu  tekla > **Nire sare hobetsien zerrenda**.
4. Sakatu  tekla > **Gehitu sarea**.
 - Gehitzeko hari gabeko sare bat bilatzeko, sakatu **Hautatu erabilgarri dauden sareen artean**. Sakatu hari gabeko sare bat. Sakatu **Hautatu sarea**.
 - Zure gailuak ezagutzen duen hari gabeko sare bat bilatzeko, sakatu **Hautatu sare ezagunen artean**. Sakatu hari gabeko sare bat. Sakatu **Hautatu sarea**.
 - Hari gabeko sare bat gehitzeko, sakatu **Eskuzko sarrera**. Ezarri hari gabeko sarearen lehentasuna. Idatzi MCCa eta MNCa.
5. Sakatu  tekla > **Itxi**.

Hari gabeko sare hobetsien zerrendatik hari gabeko sareak ezabatu

Ataza hori egiteko, zure BlackBerry® gailua GSM® edo UMTS® sare batera konektatuta egon behar da.




Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sare mugikorraren aukerak**.
3. Sakatu  tekla > **Nire sare hobetsien zerrenda**.
4. Nabarmendu hari gabeko sarearen bat.
5. Sakatu  tekla > **Ezabatu**.
6. Sakatu  tekla > **Itxi**.

Sare hobetsien ordena aldatu

Ataza hori egiteko, zure BlackBerry® gailua GSM® edo UMTS® sare batera konektatuta egon behar da.

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea. Hobetsitako sareen-zerrendan agertzen den ordenaren arabera konektatzen da BlackBerry gailua sarera.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sare mugikorraren aukerak**.
3. Sakatu  tekla > **Nire sareen zerrenda gogokoena**.
4. Nabarmendu hari gabeko sarearen bat.
5. Sakatu  tekla > **Eraman**.
6. Sakatu kokapen berria.
7. Sakatu  tekla > **Itxi**.

Sare mugikorraren aukerak

Aldatu kablerik gabeko sarearen konexio abiadura

Konexio abiadura igotzeak bateria-energia gehiago kontsumitzen du.


Zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke zure kablerik gabeko konexioaren abiadura ezin aldatzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sare mugikorraren aukerak**.
3. Aldatu **Sarearen modua** eremua.
4. Sakatu **lhes** tekla.

Lotutako gaiak

[Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 229](#)

Hari gabeko estalduraren LED jakinarazpena aktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratzea > Pantaila bistaratzea**.
3. Hautatu **LED estalduraren adierazlea** kontrol laukia.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Zure BlackBerry® gailua hari gabeko sare batera konektatuta dagoenean, LED argiak distira berdea du.

Hari gabeko estalduraren jakinarazpena desaktibatzeko, garbitu the **LED estalduraren adierazlea** kontrol laukia.

Arazoak: sare mugikorra

Ezin dut sare mugikorrera konektatu

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- BlackBerry® gailuak SIM txartela erabiltzen badu, egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Gailua normalean CDMA sare batera konektatzen bada eta nazioarteko ibiltaritzaren onartzen badu, ziurtatu gailua ibiltaritzaren modu orokorrean dagoela eta SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Ziurtatu hari gabeko sarearen konexioa aktibatuta duzula.
- Ziurtatu hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen sarera konektatuta zaudela. Hari gabeko sareak eskuz aldatzen badituzu, gailuak hari gabeko sare horretara konektatuta jarraituko du hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen sarea berriro hautatzen duzun arte.
- Hari gabeko sarearen konexioetarako abiadura jakin bat zehaztu baduzu, ziurtatu abiadura hura onartzen duen hari gabeko sare baten estaldurapean zaudela.
- Wi-Fi® gaitutako gailua baduzu eta hari gabeko zerbitzu hornitzaileak UMA onartzen badu, ziurtatu konexio hobespenetan ez duzula Wi-Fi soilik aukera hautatu.

Lotutako gaiak

[Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 225](#)

[UMA konexiorako hobespenak aldatu, 234](#)

[Hari gabeko sareak eskuz aldatu, 226](#)

[Datu zerbitzuak gaitu edo desgaitu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu, 225](#)

Errore mezuak**Datu-zerbitzua ez dago erabilgarri :****Deskripzioa**

BlackBerry® gailuan datu-zerbitzuetara sarbiderik ez duzunean agertzen da mezua.

Balizko arazoak

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu hari gabeko sare baten estaldurapean zaudela.
- Egiaztatu gailuko datu-zerbitzua aktibatuta dagoela.
- Ibiltaritzan bazaude, egiaztatu datu-zerbitzarietara sar zaitezkeela ibiltaritzan.

Lotutako gaiak

[Datu zerbitzuak gaitu edo desgaitu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu, 225](#)

Wi-Fi teknologia

Zure BlackBerry® gailuaren modeloaren arabera, baliteke Wi-Fi® eginbidea bateragarria ez izatea.

Wi-Fi sareetara konektatzeari buruz

Wi-Fi® teknologiarekin zure BlackBerry® gailuak Interneterako sarbidea du hari gabeko bideratzaile edo hari gabeko sarbide puntu batera konektatzerakoan, etxean, lanean edo hotspot eremu batean. Zure gailuak Wi-Fi sarea erabiltzen du web orrialdeak bisitatzeko, mezu elektronikoak bidali eta jasotzeko eta abarretarako, mugikorreko sarea erabili beharrean. Internetera Wi-Fi sare baten bidez konektatzen zarenean, baliteke mugikorreko sarea erabiltzearen ondoriozko tarifa osagarriak ez aplikatzea eta, gehienetan, konexioaren abiadura azkarragoa da.

Hotspot-ak leku publiko askotan daude erabilgarri, hala nola, liburutegiak, aireportuak, hotelak, kafetegiak, etab. Hotspot batzuk doakoak dira, beste batzuetarako ordaindu behar da. Agian hari gabeko zerbitzu hornitzaileak aplikazio bat emango dizu sare publikoetara konektatzeko. Zure gailuan horrelako aplikaziorik ez baduzu, agian zerorrek konfiguratu beharko duzu kontua linean eta saioa eskuz hasi beharko duzu.

Wi-Fi Protected Setup™ onartzen duen sarbide puntua edo bideratzailea baduzu, bertara konekta zaitezke Wi-Fi Protected Setup erabiliz.

Wi-Fi sare batera konektatzen zarenean, zure gailuak konexioaren informazioa gordeko. Horrela, gailua automatikoki konektatuko da sare horretara gailua sare horren estaldurapean dagoen hurrengo aldian.

Wi-Fi sare batera konektatu

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi**.
3. Hotspot publiko edo autentifikaziorik behar ez duen Wi-Fi® sare batera konektatu nahi baduzu, hautatu **Erakutsi Sare irekiak soilik** kontrol laukia.
4. Sakatu konektatu nahi duzun Wi-Fi sarea.
5. Wi-Fi sareak autentifikazioa behar du, idatzi sarearen pasahitza.

Wi-Fi sarearen izena Hasierako pantailaren goialdean agertzen da.

Lotutako gaiak

[Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 235](#)

Konektatu Wi-Fi sare batera Wi-Fi Protected Setup

Wi-Fi Protected Setup™ konfigurazioa duen bideratzaile edo hari gabeko sarbide puntu bat baduzu, Wi-Fi® sarera azkar konekta zaitzke pasahitz luzea sartu beharrik gabe.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi > Konektatzeko beste modu batzuk**.
 - Zure bideratzaileko edo sarbide puntuko Wi-Fi Protected Setup botoia erabiltzeko, sakatu **Sakatu bideratzaileko botoia**. Zure bideratzailean edo sarbide puntuan, sakatu Wi-Fi Protected Setup botoia. Zure BlackBerry® gailuan, sakatu **Hasi**.
 - PIN bat erabiltzeko, sakatu **Idatzi PIN zenbakia bideratzailean**. Zure gailuan, sakatu **Hasi**. Zure gailuak PIN bat emango dizu. Zure bideratzaileko edo sarbide puntuko administrazio pantailan, idatzi PINa.

Wi-Fii sare batera eskuz konektatu

Konektatu nahi duzun Wi-Fi® sarearen izena badakizu, sarera eskuz konekta zaitzke.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi > Konektatzeko beste modu batzuk > Konektatu eskuz sarera**.
3. **SSID** eremuan, idatzi Wi-Fi sarearen izena.
4. Sakatu **Hurrengoa**.
5. **Segurtasun mota** eremuan, sakatu Wi-Fi sarearen segurtasun mota eta zehaztu eskatutako edozein informazio.
6. Sakatu **Gorde eta konektatu**.


Lotutako gaiak

[Gordetako Wi-Fi sareentzako aukerak, 232](#)

[Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 235](#)

Aldatu, eraman edo ezabatu gordetako Wi-Fi sarea


1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi sarea > Gordetako Wi-Fi sareak**.
3. Nabarmendu gordetako Wi-Fi® sare bat.

4. Sakatu  tekla.
 - Gordetako sarearen aukerak aldatzeko, sakatu **Editatu**. Aldatu aukerak. Sakatu **Gorde**.
 - Gordetako sarea eramateko eta zure BlackBerry® gailuak zuk gordetako sareetara konektatzeko jarraituko duen ordena aldatzeko, sakatu **Eraman**. Sakatu kokaleku berri bat.
 - Gordetako sarea ezabatzeke, sakatu **Ezabatu**.

Lotutako gaiak



[Gordetako Wi-Fi sareentzako aukerak, 232](#)

Gailua gordetako Wi-Fi sare batera konektatzea eragotzi

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi > Gordetako Wi-Fi sareak**.
3. Nabarmendu gordetako Wi-Fi® sare bat.
4. Sakatu  tekla > **Desgaitu**.

Hotspot guneetarako agertzen den gonbita aktibatzeke

Lehenespenez, zure BlackBerry® gailuak hotspot gunea izan daitekeen gordetako Wi-Fi® sarearen eskumenean zaudela abisatzen du. Gonbit hauek desaktibatzen badituzu, berriro aktiba ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi**.
3. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
4. Hautatu **Galdetu inguruan gordetako hotspot bat aurkitzen denean** kontrol laukia.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Gordetako Wi-Fi sareentzako aukerak

Aukera arruntak

Aukera	Deskripzioa
Name	Idatzi Wi-Fi® sarearen bistaratzeko izena.
SSID:	Idatzi Wi-Fi sarearen izena.
Segurtasun mota	Ezarri Wi-Fi sareak onartzen duen segurtasun mota.
Banda mota	Ezarri Wi-Fi sare mota. Sare mota ez badakizu, ez aldatu eremu hori.
SSID igorri da	Zehaztu Wi-Fi sareak bere SSID igortzen duen ala ez.
Automatikoki lortu IP helbidea eta DNS-a	Zehaztu BlackBerry® gailuak bideratzaile bidezko IP bat, azpisare maskara, DNS ezarpenak eta atebide helbide bideragarriak Wi-Fi saretik jasotzen dituen ala ez.

Aukera	Deskripzioa
Baimendu interneterako sarbide puntua transferitzea	Zehaztu hari gabeko sarbide puntuen artean mugitzen zarenean gailua Wi-Fi-ra konektatuta mantendu behar den edo ez.
VPN profila	Beharrezkoa bada, VPN profil bat ezarri gordetako Wi-Fi profila erabiltzeko.
IP helbidea	Idatzi gailuaren IP helbidea.
Azpisare maskara	Idatzi zure gailua konektatuko den hari gabeko sarbide puntuaren azpisare maskara.
Lehen mailako DNS	Idatzi zure gailua konektatuko den lehen mailako DNS.
Bigarren mailako DNS	Idatzi zure gailua konektatuko den bigarren mailako DNS.
Atebidearen helbide lehenetsia	Idatzi zure gailua konektatuko den lehenetsitako atebide IP helbidea.
Domeinuaren atzizkia	Idatzi zure gailuak ostalarien izenak IP helbide bihurtzeko erabiltzen duen domeinua.

WEP aukerak

WEP segurtasun mota aukeratu baduzu agertuko dira aukera horiek.

Aukera	Deskripzioa
Hautatu WEP gakoa	Ezarri Wi-Fi sarearen WEP gakoa.
WEP gakoa	Idatzi Wi-Fi sarearen WEP gakoa formatu hamaseitarrean.

WPA/WPA2 Pertsonala aukerak

WPA/WPA2 Pertsonala segurtasun mota aukeratu baduzu agertuko dira aukera horiek.

Aukera	Deskripzioa
Pasaesaldia	Beharrezkoa bada, idatzi WPA™ edo WPA2™-Personal pasaesaldi pertsonala Wi-Fi sarera konektatzeko.

WPA/WPA2 Enpresa aukerak

WPA/WPA2 Enpresa segurtasun mota aukeratu baduzu agertuko dira aukera horiek.

Aukera	Deskripzioa
Enpresa azpi-mota	Beharrezkoa bada, ezarri enpresa segurtasunerako metodoa Wi-Fi sarerako.

Aukera	Deskripzioa
Username	Beharrezkoa bada, idatzi Wi-Fi sarera konektatzeko erabiltzen duzun erabiltzailearen izena.
Pasahitza	Beharrezkoa bada, idatzi Wi-Fi sarera konektatzeko erabiltzen duzun pasahitza.
CA ziurtagiria	Ezarri zure gailuak erabili behar duen erro ziurtagiria Wi-Fi sarera konektatzen ari dela egiaztatzeko.
Bezeroaren ziurtagiria	Ezarri zure gailuak Wi-Fi sarera konektatzeko erabili behar duen autentifikazio ziurtagiria.
Barneko esteka segurtasuna	Beharrezkoa bada, ezarri Wi-Fi sareak onartzen duen segurtasun protokoloa bere barruko autentifikazio metodorako.
Token-a	Ezarri hardware token bat erabiltzen duzun Wi-Fi sarera konektatzeko.
Zerbitzariaren gaia	Beharrezkoa bada, idatzi gailuak Wi-Fi sare zuzenera konektatzen ari dela egiaztatzeko erabili behar duen zerbitzariaren izena.
SAN zerbitzaria	Beharrezkoa bada, idatzi gailuak Wi-Fi sare zuzenera konektatzen ari dela egiaztatzeko erabili behar duen zerbitzari SANA.

Erroko ziurtagiria gailuan instalatu

Baliteke Wi-Fi® sare batzuk konektatu ahal ez izatea zure BlackBerry® gailuan erroko ziurtagiria instalatzen duzun arte. Erroko ziurtagiria BlackBerry® gailuan instalatu ondotik, BlackBerry® Desktop Software kudeatzailearen ziurtagiriak sinkronizatzeko tresna erabil dezakezu erroko ziurtagiria gailuaren eta ordenagailuaren artean sinkronizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwarearen Laguntza edo jarri harremanetan administratzailearekin.

UMA konexio ezarpenak


Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin.

Wi-Fi sare batekin UMA erabiltzeari buruz

Hari gabeko zerbitzu hornitzaileak UMA (GAN gisa ere ezaguna) onartzen badu eta zerbitzu honetara harpidetzen bazara, deiak egin, web orrialdeak bisitatu eta mezu elektronikoak, PIN mezuak eta testu mezuak bidali eta jaso ahalko dituzu Wi-Fi® sare batekin. Zure BlackBerry® gailua automatikoki aldatzen da zure sare mugikorraren eta Wi-Fi sareen artean, gailua erabiltzen ari zaren lekuan zein sare erabilgarri dagoen arabera. UMAri buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin.

UMA konexiorako hobespenak aldatu



1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sare mugikorraren aukerak**.

3. Aldatu **Konexio hobetsia** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Lotutako gaiak




[Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 235](#)

Bidali Wi-Fi diagnostiko txostena

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak > Wi-Fi sarea**.
3. Sakatu  tekla > **Arazoak > Wi-Fi diagnostikoak**.
4. Sakatu  tekla > **Posta elektronikoaren txostena** edo **PIN txostena**.

Wi-Fiaren diagnostiko-txostenentzako aukerak ezarri

Wi-Fi®aren diagnostiko-txostenentzako aukerak ezartzen dituzunean, hartzaile lehenetsia ezartzen baduzu, Wi-Fiaren diagnostiko-txosten bat bidaltzen duzun bakoitzean, hartzaile hari bidaliko dio txostena BlackBerry® gailuak. Txosten bat bidaltzen duzun bakoitzean hartzailea zehaztu nahi baduzu, ez ezarri hartzaile lehenetsirik.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak > Wi-Fi sarea**.
3. Sakatu  tekla > **Arazoak > Wi-Fi diagnostikoak**.
4. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
 - Wi-Fiaren diagnostiko-txostenetan datu aurreratuetan sartzeko, hautatu **Bistaratzeko modua** eremuan **Aurreratua**.
 - Wi-Fiaren diagnostiko-txostenentzako hartzaile lehenetsia zehazteko, idatzi kontaktuaren informazioa.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Wi-Fi VPN eta software tokenekin erabiltzeari buruz

Wi-Fi® gaitasuneko BlackBerry® gailu bat baduzu eta zure erakundeak VPN konexioa erabiltzen badu bere sarerako konexioa kontrolatzeko, VPN konexioan saioa hasteko eta zure erakundearen sarera konektatzeko gai izan zaitezke Wi-Fi sarea erabiliz. Wi-Fi® gaituta duen gailua baduzu, baliteke software token-ak behar izatea Wi-Fi konexio bidez zure enpresaren sarera konektatu ahal izateko.

Wi-Fi teknologiaren arazoak konpontzea

Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu

Zure BlackBerry® gailuaren modeloaren arabera, baliteke Wi-Fi® eginbidea bateragarria ez izatea.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Ziurtatu Wi-Fi sarerako konexioa aktibatuta duzula.
- Ziurtatu Wi-Fi sare baten estaldura eremuan zaudela.

- Ziurtatu gailuko ordua sareko orduarekin sinkronizatuta dagoela.
- Wi-Fi sarea Konfiguratu Wi-Fi aplikazioan agertzen ez bada, baliteke ezkutatuta egotea. Sarearen izena badakizu, saiatu Wi-Fi sarera eskuz konektatzen.
- Konfiguratu Wi-Fi aplikazioan, egiaztatu Wi-Fi sarearentzako aukerak egokiak direla.
- Wi-Fi sareak eskuz aldatzen badituzu, aldatu beste Wi-Fi sare batera edo konfiguratu BlackBerry gailua Wi-Fi sare erabilgarriak bilatzeko.
- Hari gabeko zerbitzu hornitzaileak UMA onartzen badu, ziurtatu konexio hobespenetan ez duzula **Sare mugikorra soilik** hautatu.
- Zure kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, baliteke zure gailuak hari gabeko sarbide puntu jakin batzuetarako konexioa eragoztekoa. Informazio gehiago jasotzeko, jarri kontaktuan zure administratzailearekin.
- Push botoia konfiguratu metodoa erabiltzen ari bazara, ziurtatu sarearen sarbide puntuan Wi-Fi Protected Setup™ gaituta dagoela eta bere profila bidaltzeko ezarri dela. Ziurtatu ez dagoela aldi berean sare berera konektatzen saiatzen ari den gailurik, eta estaldura eremuan modu hau darabilen sarbide puntu bakarra dela.
- PEAP, EAP-TLS, EAP-FAST, EAP-TTLS, edo EAP-SIM protokoloetakoren bat erabiltzen baduzu Wi-Fi sarera konektatzeko, ziurtatu autentifikazio zerbitzariarentzako ziurtagiria sortu zuen zerbitzari autoritate ziurtagiri emailearen erroko ziurtagiria instalatuta duzula.
- EAP-TLS protokoloa erabiltzen baduzu Wi-Fi sarera konektatzeko, ziurtatu zure autentifikazio ziurtagiria zure gailuan gehituta duzula.

Lotutako gaiak

[Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 225](#)

[Wi-Fi sare batera konektatu, 231](#)

[Wi-Fi sare batera eskuz konektatu, 231](#)

Bluetooth teknologia

Bluetooth teknologiaren oinarriko ezagutzak

Bluetooth-a-i buruz

BlackBerry® gailua eta Bluetooth-a gaituta duen gailu baten artean hari gabeko konexioa ezartzeko diseinatuta dago Bluetooth-a teknologia, hala nola, autorako esku librekoarekin edo hari gabeko entzungailu estereoarekin.

Zure BlackBerry gailua Bluetooth-a gaitasuneko gailu batera konektatu aurretik, Bluetooth-a teknologia aktibatu behar duzue bi gailuetan eta, ondoren, bi gailuak parekatu behar dituzue. Parekatzean bi gailuen arteko erlazioa ezartzen da eta, normalean, behin egitea nahikoa izaten da.

Gailuak parekatu ondoren, elkarren artean konektatu ahal izango dituzue, baldin eta Bluetooth-a gaitutako gailu horiek BlackBerry gailuaren estaldura eremuan badaude (estaldura eremua 10 metro ingurukoa izan ohi da). Emaitza hobea lortzeko, mantendu zure BlackBerry gailua zuzenean Bluetooth-a gaitasuneko beste gailuari begira. Adibidez, zure BlackBerry gailua zure gorputzaren eskuinaldean badago, erabili Bluetooth-a gaitasuneko aurikularra eskuineko belarrian.

Bluetooth-a teknologia aktibatzen duzunean edo zure BlackBerry gailua Bluetooth-a gaitasuneko beste gailu batera konektatzen duzunean, Bluetooth-a egoera adierazleak agertzen dira hasierako pantailaren goialdean.

Bluetooth teknologia gaitu

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Hautatu **Bluetooth** kontrol-laukia.

Bluetooth® teknologia desaktibatzeke, desmarkatu **Bluetooth** kontrol-laukia.

Bluetooth-a gaitutako gailu batekin parekatu

BlackBerry® gailua Bluetooth® gaitutako gailuarekin parekatu behar duzu harekin konektatu ahal izateko. Bluetooth-a gaitutako gailua nola prestaturi buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Bluetooth-a gaitutako gailuarekin jasotako dokumentazioa.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak > Gehitu gailu berria > Bilatu**.
3. Sakatu Bluetooth-a gaitutako gailu bat.
4. Behar izanez gero, burutu ekintza hauetako bat:
 - Bluetooth-a gaitutako gailuak teklaturik ez badu (adibidez, hari gabeko aurikularra), BlackBerry gailuan, idatzi Bluetooth-a gaitutako gailuan agertzen den edo Bluetooth-a gaitutako gailuarekin jasotako dokumentazioan zehaztutako parekatzeko pasahitza. Pasakodea zenbakizkoa edo alfazebakizko kode bat izan ohi da.
 - Bluetooth-a gaitutako gailuak teklatura badu (adibidez, ordenagailu eramangarri bat), idatzi aukeratu duzun parekatzeko pasakodea bi gailuetan.

Lotutako gaiak


[Bluetooth teknologia gaitu, 237](#)


[Ezin dut nire gailua Bluetooth-a gaitasuneko gailu batekin parekatu, 243](#)

Bluetooth-a bidez parekatutako gailu batekin konektatu

Honakoa egiteko, Bluetooth® teknologia gaituta egon behar du eta zure BlackBerry® gailua Bluetooth-aa gaituta duen beste gailu batekin parekatuta egon behar da.

Baliteke zure BlackBerry gailua automatikoki Bluetooth-a gaitutako gailura konektatzen saiatzea Bluetooth-a teknologia gaituta dagoenean eta gailuak bere eskumenean daudenean.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth-a gaitasuneko gailu bat.
4. Sakatu  tekla > **Konektatu**.
5. Beharrezkoa bada, egiaztatu elkarrizketa koadroan zenbaki bera agertzen dela parekatutako bi gailuentzat.

Parekatutako beste Bluetooth-aa gaituta duen gailua batetik deskonektatzeko, nabarmendu gailua. Sakatu  tekla > **Deskonektatu**.

Lotutako gaiak

[Bluetooth teknologia gaitu, 237](#)

[Ezin dut nire gailua Bluetooth-a gaitasuneko gailu batekin parekatu, 243](#)

Aldatu Bluetooth-a bidezko gailu parekatu batera dei bat egiten ari zarela


Ataza hori egiteko, Bluetooth® teknologia gaituta egon behar da.

Dei batean zaudela, sakatu  tekla > **Aktibatu <Bluetooth gailua>**.

Lotutako gaiak

[Bluetooth teknologia gaitu, 237](#)

Partekatu kontaktuak parekatutako Bluetooth-a bidezko kotxerako esku librekoarekin


1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth® bidezko kotxerako esku libreko bat.
4. Sakatu  tekla > **Transferitu kontaktuak**.

Lotutako gaiak

[Ezin dut kontakturik partekatu parekatuta dagoen Bluetooth-a gaitasuneko gailu batekin, 243](#)

Multimedia fitxategiak jaso Bluetooth-a teknologia erabiliz

Ataza hori egiteko, Bluetooth® teknologia gaituta egon behar da.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa.
2. Sakatu multimedia fitxategi mota.
3. Sakatu  tekla > **Jaso Bluetooth bidez**.
4. Bidali multimedia fitxategia Bluetooth-a gaitasuneko gailutik.
5. Sakatu **Bai** > **Gorde**.


Lotutako gaiak

[Bluetooth teknologia gaitu, 237](#)

Multimedia fitxategi bat bidali edo partekatu



Ataza hori Bluetooth® gaitasuneko gailu parekatu batekin egiteko, Bluetooth teknologia aktibatu behar duzu.

Zure irudiak eta bideoak parteka ditzakezu instalatuta dituzun aplikazioetan, hala nola, BlackBerry® gailuetarako Facebook® eta BlackBerry gailuetarako YouTube® aplikazioetan.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Multimedia** ikonoa.
2. Sakatu multimedia fitxategi mota.
3. Beharrezkoa bada, sakatu kategoria bat.
4. Nabarmendu multimedia fitxategi bat.
5. Sakatu  tekla.
6. Burutu ekintza hauetako bat:


- Irudi edo bideo bat bidaltzeko, sakatu **Bidali**. Sakatu mezu mota edo aplikazio bat.
- Audio fitxategi bat bidaltzeko, sakatu mezu mota bat bidaltzeko aukera.

Bluetooth-a bidezko gailu parekatu baten izena aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth® bidezko gailu parekatu bat.
4. Sakatu  tekla > **Gailuaren propietateak**.
5. **Gailuaren izena** eremuan, aldatu Bluetooth-a bidezko gailuaren izena.
6. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Bluetooth-a gaitasuneko gailu parekatuak ezabatu

Ataza hau burutzeko, BlackBerry® gailua Bluetooth® gaitasuneko gailutik deskonektatu behar duzu.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth® bidezko gailu parekatu bat.
4. Sakatu  tekla > **Ezabatu gailua**.

Bluetooth teknologiaren aukerak



Bluetooth profilak

BlackBerry® gailuaren modeloaren eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke profil batzuk bateragarriak ez izatea.

Aukera	Deskripzioa
Audio iturria (A2DP)	BlackBerry gailuko audioa estereo audioa onartzen duten Bluetooth® gaitutako gailuetara eraman dezakezu profil honekin, aurikularretara, bozgorailuetara eta autoko kit estereoetara, adibidez.
A/V urruneko kontrola (AVRCP)	Bluetooth gaitutako aurikularren botoiekin ekintzak burutu ditzakezu profil honekin, adibidez, bolumena doitu edo BlackBerry gailuko aurreko edo hurrengo multimedia-fitxategia erreproduzitu.
Datu transferentzia	Zerbitzu honi esker, datuak transferitzea, adibidez, multimedia-fitxategiak, onartzen duten Bluetooth gaitutako gailuetara konekta dezakezu BlackBerry gailua.
Mahaigainaren konexutasuna	Zerbitzu honi esker, BlackBerry® Desktop Software softwarea darabilten Bluetooth gaitutako ordenagailuetara konekta dezakezu BlackBerry gailua, antolatzaileko datuak sinkronizatu ahal izateko.

Aukera	Deskripzioa
Telefonozko sareratzea (DUN)	BlackBerry Desktop Software softwarea darabilten Bluetooth gaitutako ordenagailuetara konektatuta dagoenean, modem gisa erabilde dezakezu BlackBerry gailua profil honekin.
Eskulibrea (HFP)	Eskulibrea profila onartzen duten Bluetooth gaitutako eskulibreetara eta autoko kitetara konekta dezakezu BlackBerry gailua profil honekin.
Aurikularra (HSP)	Aurikularra profila onartzen duten Bluetooth gaitutako aurikularretara konekta dezakezu BlackBerry gailua profil honekin .
Mezura Sartzeko Profila (MAP)	Profil honek Bluetooth gaitutako autoko kitak erabiltzen utziko dizu zure BlackBerry gailuarekin, honek mezu berriak jakinarazteko. Profil honek mezuak irakurtzen, ezabatzen, arakutzen, konposatzen, eta bidaltzen lagunduko dizu.
Serieko atakaren profila	Mahaigaineko konexioa, hari gabeko saihezbidea eta datu transferentzia onartzen dituzten Bluetooth gaitutako gailuetara konekta dezakezu BlackBerry gailua profil honekin.
SIM sarbidea	BlackBerry gailuak SIM txartela badarabil, profil honekin Bluetooth gaitutako autoko kitak gailuko SIM txartela kontrola dezake zure BlackBerry gailuan, autoko kita erabiliz deiak egin eta jaso ahal ditzazun. Eginbidea erabiltzen duzunean, datu-zerbitzuak (arakatzailearen zerbitzua, mezu elektronikoak, PIN mezuak, eta MMS mezuak) ez dira erabilgarri egongo gailuan, eta telefonoaren zerbitzuetarako autoko kitaren bidez soilik sartu ahal izango duzu. Eginbidea erabili ahal izateko, baliteke autoko kitak sortutako 16 digituko alfazenbakizko kode bat sartu behar izatea BlackBerry gailuan.
Hari gabeko zubia	Zerbitzu honi esker, BlackBerry Desktop Software softwarea darabilten Bluetooth gaitutako ordenagailuetara konekta dezakezu BlackBerry gailua, mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko eta, hari gabeko sarera konektatu gabe, antolatzaileko datuak sinkronizatu ahal izateko. Zerbitzua erabiltzeko, zure kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server erabili behar du.



Gailuak beste Bluetooth-a gaitutako gailuentzako kontaktuak erabilgarri bihurtzea eragotzi

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
4. Aldatu **Transferitu kontaktuak** eremua.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Gailuak Bluetooth® gaitutako beste gailu batzuentzako kontaktuak berriro erabilgarri bihur ditzan, **Kontaktuen transferentzia** eremuan hautatu **Guztiak**.

Kanporanzko deiak murriztu

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.

2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
4. Ezarri **Baimendu irteerako deiak** eremua **Inoiz ere ez** edo **Desblokeatuta badaude** jarri dezan.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.



BlackBerry gailua aurkigarri egin

BlackBerry® gailua aurkigarri egiten baduzu, Bluetooth® gaitutako beste gailuek zure gailua detektatu ahal izango dute.



1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Aldatu **Aurkigarria** eremuan **2 minutu** aukerara.

Bi minutu igarotakoan, **Berreskuragarria** eremuan **Ez** jarriko du automatikoki.

BlackBerry gailuaren parekatze izena aldatu



1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
4. **Gailuaren izena** eremuan, idatzi BlackBerry® gailuaren izena.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Bluetooth-a konexioen jakinarazpenak deskonektatu

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
4. Garbitu **LED konexioaren adierazlea** kontrol laukia.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Bluetooth® konexioen jakinarazpena berriz konektatzeko, hautatu **LED konexioaren adierazlea** kontrol-laukia.

Konektatzerakoan edo parekatzerakoan agertzen den abisua ezgaitu


1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth® bidezko gailu parekatu bat.
4. Sakatu  tekla > **Gailuaren propietateak**.
5. Hautatu **Fidagarria** eremuan **Bai**.
6. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Abisua berriro aktibatzeke, hautatu **Fidagarria** eremuan **Abisatu**.



Zure Bluetooth-a gaitutako autoko kitak jakinarazten dizkuzun mezu motak ezarri

Ataza hori egiteko, zure Bluetooth® gaitutako autoko kitak enabled car kit must support the Mezura Sartzeko Profila (MAP) onartu behar du.

Bluetooth-a teknologia zure autoan erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi autoarekin datorren dokumentazioa.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu  tekla > **MAP aukerak**.
4. Hautatu mezu mota baten edo gehiagoren ondoko kontrol laukia.

Bluetooth-a profil bat deskonektatu



1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
4. **Zerbitzuak** atalean, garbitu Bluetooth® profil baten edo gehiagoren ondoko kontrol-laukia.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Lotutako gaiak

[Bluetooth profilak, 239](#)



Bluetooth-a teknologiaren bidez bidaltzen eta jasotzen dituzun datuak enkriptatu

Zeregin hau egiteko, datuak enkriptatzea onartu behar du Bluetooth® gaitutako gailu parekatuak.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
4. Hautatu **Enkriptatzea** kontrol-laukia.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Bluetooth-a bidezko gailuetarako birkonexio automatikoa deskonektatu

Besterik adierazi ezean, BlackBerry® gailua pizten duzunean, erabili duzun Bluetooth® gaitutako azken gailura konektatzen saiatuko da gailua.

1. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu  tekla > **Aukerak**.
4. Garbitu **Konektatu pizterakoan** kontrol laukia.
5. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Arazoak: Bluetooth teknologia

Ezin dut pasahitza sartu Bluetooth gaitasuneko gailu batean

Ezin baduzu pasahitza sartu Bluetooth® gaitasuneko gailu batean, baliteke pasahitza aurretik definituta egotea. Zure BlackBerry® gailuan, **Sartu <gailuaren izena> gailuaren pasahitza** eremuan, saiatu **0000** idazten.

Ez da nire parekatutako Bluetooth-a gailuen zerrendan agertzen

Saiatu ekintza hauek burutzen:



- Egiaztatu Bluetooth-a teknologia aktibatuta dagoela.
- Egiaztatu Bluetooth-a gaitasuneko gailuak gehitu dituzula Bluetooth-a gaitasuneko gailu parekatuen zerrendan.

Lotutako gaiak

[Bluetooth teknologiaren oinarritzko ezagutzak, 236](#)

Ezin dut nire gailua Bluetooth-a gaitasuneko gailu batekin parekatu

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu zure BlackBerry® gailua Bluetooth® gaitasuneko gailuarekin bateragarria dela. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus Bluetooth-a gaitasuneko gailuarekin jasotako dokumentazioa.
- Ez baduzu zure Bluetooth-a gaitasuneko gailuaren pasahitza ezagutzen, ikus Bluetooth-a gaitasuneko gailuarekin jasotako dokumentazioa.
- Zure BlackBerry gailuak ez badu parekatu nahi duzun Bluetooth-a gaitasuneko gailua hautematen, saiatu zure BlackBerry gailua aldi baterako berreskuragarri moduan jartzen. Autoko kit askok zure BlackBerry gailua hauteman behar izaten dute, zure BlackBerry gailuak autoko kita hauteman beharrean. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa. Sakatu **Bluetooth konexioak**. Sakatu **Gehitu gailu berria**. Sakatu **Entzun**. Bluetooth-a gaitasuneko gailuek zure BlackBerry gailua bi minutuz hauteman dezakete.
- Aktibatu Bluetooth-a konexioen enkriptatzea, BlackBerry gailua eta Bluetooth-a gaitasuneko gailua konektatzerakoan erabiltzeko. Hasierako pantailan, sakatu sakatu konexioen eremuan, pantailaren goialdean edo **Kudeatu konexioak** ikonoa. Sakatu **Bluetooth konexioak**. Nabarmendu Bluetooth-a gaitasuneko gailu bat. Sakatu  tekla > **Gailuaren propietateak**. Garbitu **Enkriptatzea** kontrol laukia. Sakatu  tekla > **Gorde**.

Ezin dut kontakturik partekatu parekatuta dagoen Bluetooth-a gaitasuneko gailu batekin

Probatu hau:

- Egiaztatu Bluetooth-a teknologia aktibatuta dagoela.
- Egiaztatu zure BlackBerry® gailua Bluetooth-a gaitasuneko gailuaren parean dagoela.
- Egiaztatu Bluetooth-a aukeretan **Kontaktuen transferentzia** eremua ez dagoela **desgaitua**.

- Egiaztatu zure BlackBerry gailua Bluetooth-a gaitasuneko gailu bati konektatuta dagoela eta gailu horrek esku libreko profila edo Object Push profila onartzen dituela. Onartzen diren profilei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus Bluetooth-a gaitasuneko gailuarekin zetorren dokumentazioa.

Lotutako gaiak


[Bluetooth teknologiaren oinarritzko ezagutzak, 236](#)

[Partekatu kontaktuak parekatutako Bluetooth-a bidezko kotxerako esku librekoarekin, 238](#)


Energia eta bateria

Gailua itzali

Zure gaiaren arabera, Itzali ikonoaren kokapena edo izena hemen aipatzen den kokapenaren edo izenaren ezberdina izan daiteke.

- Ez baduzu zure BlackBerry® gailua konfiguratu une jakinetan automatikoki pizteko eta itzaltzeko, eduki sakatuta  tekla.
- Zure gailua une jakinetan automatikoki pizteko eta itzaltzeko konfiguratu baduzu, hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Itzali** ikonoa. Zure gailua berriro pizten duzun arte itzalita egotea nahi baduzu, sakatu **Guztiz itzali**. Zure gailua une jakin batean berriro piztea nahi baduzu edo alarma edo egutegiko gogorazleekin pizteko, sakatu **Itzali**.

Ezarri zure gailua automatikoki konektatu eta deskonektatzeko

